

Hezkuntza eraldatzailerako eta herritartasun globalerako metodologiak

Rubén Gallego

Izenburua: Hezkuntza eraldatzailerako eta herritartasun globalerako metodologiak

Edizioa: InteRed Fundazioa

Argitalpenaren koordinazio teknikoa: Iratxe Palacín Garay

Egilea: Rubén Gallego

Eskerrak: asko dira lan honetan parte hartu duten pertsonak eta eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien ekarpenak, ezinegonak eta konpromisua lan honen emaitza direla ziurtatuz: Malen álvarez, Nora Silva Leis, Rubén Gallego, Macarena Arrieta, Guillermo Aguado, Jorge A. Correa eta Josune Urrutia Asua.

Berrikusketa: Guillermo Aguado de la Obra

Itzulpena: Bakun S.L.

Azala ilustrazioa, diseinua eta maketazioa: Josune Urrutia Asua

Data: 2018ko apirila

ISBN: 978-84-946423-6-4

CC BY NC ND

Argitalpen hau Garapeneko Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Bizkaiko Foro Aldundian finantzazioarekin burutu da. Argitalpen honen edukia InteRed Fundazioaren ardura da eta ez du GLEA edo BFA aren iritzia islatzen.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZAINTZEN PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE LOS CUIDADOS

InteRed
por una educación transformadora

6 **Hezkuntza eraldatzailerako eta herritartasun globalerako metodologiak**

7 Eginkizunean sartu

10 **Metodologia ludikoak**

11 1. Jolas kooperatiboak

12 - Zer da jolas kooperatiboa?

14 - Jolas kooperatiboei buruzko zertzelada metodologikoak

16 - Jolas kooperatiboak eta Hezkuntza Eraldatzailea

18 2. Ludopedagogia

19 - Zer da Ludopedagogia?

20 - Ludopedagogiari buruzko zertzelada metodologikoak

23 - Ludopedagogia eta Hezkuntza Eraldatzailea

24 **Metodologia artistikoak**

26 1. Zapalduaren Antzerkian oinarritutako metodologia ludikoteatralak

27 - Zer dira Zapalduaren Antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralak?

29 - Zapalduaren Antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralen zertzelada metodologikoak

30 - Zapalduaren Antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralak eta Hezkuntza Eraldatzailea

32 2. Hezkuntzara bideratutako Arteterapiaren tresnak

32 - Zer dira hezkuntzara bideratutako Arteterapiaren tresnak?

34 - Hezkuntzara bideratutako Arteterapiaren zertzelada metoologikoak

36 - Arteterapiaren tresnak eta Hezkuntza Eraldatzailea

38 **Metodologia esperientzialak**

40 1. Eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua

40 - Zer da eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua?

42 - Eskubideen ikuspegia duen ApSren zertzelada metodologikoak

44 - Eskubideen ikuspuntua duen Ikaskuntza-Zerbitzua eta Hezkuntza Eraldatzailea

45 2. Ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza

46 - Zer da ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza?

47 - Ikuspegi globala duten proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren zertzelada metodologikoak

50 - Ikuspegi globala duten proiektuetan oinarritutako ikaskuntza eta Hezkuntza Eraldatzailea

52 Bibliografia eta intereseko erreferentziak

Hezkuntza eraldatzailerako eta herritartasun globalerako metodologiak

Rubén Gallego
Diplomaduna da Gizarte Lanean. 15 urte baino gehiago daramatza borondatezko lanak egiten InteReden. Bertan, metodologia ludiko-artistikoetan espezializatu da eta formakuntzako erreferente bihurtu da erakundean.

Eginkizunean sartu

Hezkuntza-mota batek ingurumen-iraunkortasuna, giza eskubideak, berdintasuna eta genero-ekitatea kontuan hartzen dituen jarduerak proposatzen baditu, eta hori guztia garatzen den erakundeetako sailetan koherentziaz egiten bada, heziketa hori **Hezkuntza Eraldatzailea** da.

Inor ez dadila izutu... edo bai... Ez al dira kontuan hartzen ikastetxeetan edo udalekuetan, adibidez, ingurumenaren babesa eta pertsonak? Galdera zaila eta konprometigarria. Erreferentziatzat metodologia naturala – "Zaintzen Pedagogiarako haziak" moduluan aipatua – eta bizitzarekin berkonektatzeko afektuaren garrantzia hartzen baditugu, eta horiek lotzen baditugu, esaterako, eskola-jantoki edo aterpetxe gehienetan eskaintzen diren menuekin –gehienak zerbitzu azpikontratatuak–, ziur gaude segurtasun-parametroak eta dagokien legedia betetzen direla. Baina zaintzaren ikuspegitik begiratuko bagenu, honako hauek aintzat hartuko beharko genituzke: Nondik datoz kontsumitzen diren produktuak? Nola landatu dituzte eta zer lan-baldintzatan? Adibide horrekin jarraituz, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO, 2000) arabera: "fauna eta flora basatiak izugarri murriztu dira (karduak, azak eta mitxoletak ugaritu egin dira, eta gero eta intsektu, hegazti eta karraskari gutxiago daude)", eta hori gertatzen da "ongarri eta produktu kimikoen kantitate handiak erabiltzen direlako eta animalia askoren gorotzak masiboki aplikatzen direlako..."

Horrek esan nahi du jateko erabiltzen diren produktu gehienek, baita ikastetxeetako menuetan daudenek ere, ez dutela ingurumena zaintzen, eta, beraz, ezta pertsonak ere, ekosistema komun baten partaideak diren aldetik. Eta horrek sakondu behar ez dugun beste errealitate gordin baten aurrean jartzen gaitu. Baina ingurumena babesteko legeek babesten ez badute, zertarako daude? Zer interes daude atzean? B**enetako Hezkuntza Eraldatzaile baten ondoan errealitateari buruzko begirada kritiko bat dago**; maila diskurtsibo nagusi eta hegemonikotik harago sakontzen ahalegintzen da, ingurumena eta pertsonak zaintzeko jarduerak sortzeko.

Gainera, gertaera horrek atal honetako izenburuaren bigarren zatiarekin konektatzen gaitu: Zertarako hezi modu eraldatzailean? Bada, **Herritartasun Globaleko kontzientzia bat sortzeko**. Zainzuriak Txinan nola landatzen diren, adibidez, guri ere eragiten digu, eta, era berean, hemen kontsumitzen ditugun produktuen kopuruak eragina du ekoizten diren lekuetan. **Tokian tokiko**

ikuspegi bat eta, aldi berean, mundu mailako bat behar dira, gure gertuko eta urruneko ingurunean gertatzen diren problematika konplexuei heltzeko.

Zalantzarik gabe, gure gizartean hezkuntzaz (eta, agian, hezieraz) arduratzen diren erakundeek, tamalez, Txinan landatu eta hemen kontsumitzen ditugun zainzurien gaia baino lehentasun garrantzitsuagoak dituzte (nahiz eta orain arte aipatzen ari garenari buruzko adibide argigarria izan, hutsala izanik ere). *La Repetición de Curso y sus Factores Condicionantes en España* (Cordero, Manchón & Simancas, 2009) dokumentuaren arabera, eskola uztea eta eskola-porrota "hezkuntza-sistemaren kezka nagusiak" dira, baita eskola-jazarpena ere, indarkeria-adierazpena eta **zaintzaren etikan oinarritutako eredu baten paradigmaren** antitesia den aldetik. Era berean, **pertsona izaki holistiko** gisa aintzat hartuko duen eredu bat aurkitzeko kezka gero eta handiagoa da. Hori guztia, ez dezagun ahaztu, Administrazio Publikoen eta hezkuntza-agenteen arteko testuinguru gatazkatsu batean, murrizketa ekonomikoak eta sozialak, besteak beste, izan direlako (oraindik ez da lortu Hezkuntzak 2009an zuen inbertsioa).

Horren guztiaren erdian, atal honetan hiru metodologia-multzo aurkituko dituzu (**ludikoak, artistikoak eta esperientzialak**), bina proposamen metodologikoekin, guztira sei direla. Denak edozein hezkuntza-testuingurutan gara daitezke. Dena dela, metodologia ludikoak (**jolas kooperatiboa eta Ludopedagogia**) hezkuntza ez-formaleko testuinguruetan garatu dira sakonago, mugitzeko askatasuna behar baitute. Artistikoak (**zapalduaren antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralak, hezkuntzan aplikatutako Arteterapiako tresnak**) hezkuntza formaleko eta ez-formaleko testuinguruetan erabili eta sistematizatu dira. Esperientzialak (**eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua eta ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza**), berriz, asko egokitu dira hezkuntza formaleko esparrura, eta oso ezagunak dira hezkuntza ez-formaleko testuinguruetan. Hezkuntza-unibertso horretan, hauts kosmikoaren antzera, harremanetan jartzen dira etorkizuneko mundua alda dezaketen pertsonak. Gure iritziz, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen (HGHE) oinarriei lehentasuna ematen dion testuinguru batean, haurrek eta nerabeek beren potentzial guztiarekin izaki bizidun gisa garatzeko aukera badute, errazago "deuseztatuko dugu pobrezia, babestuko dugu planeta eta ziurtatuko dugu oparotasuna" (NBEk sustatutako Garapen Iraunkorreko Agenda, 2015).

Hala ere, hori gauzatzeko zailtasunak ugariak eta konplexuak dira, eta beste gizarte-testuinguru batzuetan gertatzen diren problematika batzuen antzeko ezaugarriak dituzte. Horietako bat Administrazio Publiko zentralen eta eskualdekoen bidez hezkuntzara bideratzen diren baliabideak dira. Izan ere, Finlandiak baino ia hiru puntu gutxiago bideratzen ditugu hezkuntzara, barne-produktu gordinari dagokionez (Munduko Bankua, 2014).

Errealitate batean, pertsonen eta ingurumenaren arteko harremana izateko modua zaintza baldin bada, biak dira protagonistak eraldatu nahi diren errealitateetan. Hori dela eta, hezkuntzako profesionalen (monitoreak, irakasleak, laguntzaileak, etab.) eta hezigaien artean dagoen proportzioa onartezina da. Nire familian bi nerabe badaude, begi bistakoa da bizikidetza, zenbaitetan, ez dela erraza izango. Nola egon daiteke zaintza-testuinguru bat ikasgela batean, 27 nerabe baldin badaude? Nire familian haurren bat baldin badago, familiak egunero behin baino gehiagotan oihanaren antza handiagoa izango du, Mendebaldeko familia eredugarri batena baino. Izan al daiteke errespetuzko heziketa bat, ikasgela batean sei urte bitarteko 24 haur eta profesional bakar bat badaude? Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak (ELGE, 2012) bere garaian adierazi zuen ratioa jaistea "ez dela nahikoa hezkuntza-sistemen errendimendua hobetzeko". Hala ere, egia da **funtsezkoa dela eskubideak, ingurumen-iraunkortasuna eta genero-berdintasuna aintzat hartzen direnean**.

Gaur egungo hezkuntza-errealitate konplexuaz jabetuta, eta InteRed azken bi hamarkadetan hezkuntza-testuinguruetan ematen ari den laguntza kontuan izanda, **ondoren azalduko diren metodologien xedea profesionalei laguntzea da, hezkuntza formalean nahiz ez-formalean, beren jardueretan edo ikaskuta-planetan HGHE bat landu nahi badute**.

Metodologia horietan guztietan, lan honetan hain presente dauden eta InteRedek azpimarratzen dituen **zaintzak, generoa, kulturartekotasuna, iraunkortasuna eta giza eskubideak** lantzen dira. Dena dela, eta gehiegi ez errepikatzearren, metodologia batzuetan gehiago azpimarratzen dira ikuspegi batzuk beste batzuk baino, baina guztietan dira garrantzitsuak ikuspegi horiek.

Espero dut lerro hauek zure eguneroko jardunean praktikan jartzea eta gozatzea. Espero dut niri bezainbeste balio izatea. Espero dut zerbaitetan laguntzea eta irakurlearengandik harago zabaltzea... On egin diezazuela!

Metodologia ludikoak

Modulo honetan honetan bi metodologia aurkituko dituzu ludikoan eta espontaneoan oinarrituta, bai **eta jolasaren unibertsoarekin eta jolasaren esanahiarekin lotutako guztian ere, mundu emozionala, mobilizazio kolektiboa eta gizartearen transformazioa kontuan hartzen direnean**.

Hasteko, **jolas kooperatiboen** metodologia zehaztuko dugu. Horretarako, aintzat hartuko dugu **prozesu pertsonalak eta taldekoak errazten dituela**, hezkuntza-esparruetan **HGHE bat lantzeko**. Bidearen alde horretatik hasiko gara, argitalpen honetan aurkezten diren metodologien arteko zaharrena baita, eta, agian, errotuena eta InteRedek bere hezkuntza-eginkizuna garatzeko kontuan hartu duena. Erakundean, metodologia horren bidea InteRed Euskal Herriko Ordezkaritzan hasi zen duela ia hogei urte, *"*Juegos cooperativos para la Paz" izeneko bizipen-tailer baten bidez, eta, urteen joanean, InteRedeko *Boluntarioak Prestatzeko Ikastaroko* edukiak osatzen dituzten moduluetako bat izan zen.

Ordutik hona, jarduera, jolas partekatu eta gogoeta ugari egin dira... Bide luzea egin dugu, askotan beste erakunde publiko, pribatu eta adiskide batzuekin lankidetzan.

Argitalpen honetako testua *Etenaldia, jolas kooperatiboa, eraldaketarako tresna gisa* liburuaren sintesia dela esan daiteke. Liburu hori InteRedek argitaratu zuen, *Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu* kanpainaren barruan. Kanpaina hori jolasa oro har, eta jolas kooperatiboa bereziki, oinarritzen saiatzen da, bizitzarako eta hezkuntza-testuinguruetarako hezkuntza-metodologia bat izan daitezen. Enrique Pérez Oliverasen arabera (Gallegok aipatua, 2014), "lankidetzak arazoak eta gatazkak konpontzen lagundu dezake; jolasak kontuan hartzen baditu elkartasuna eta lankidetza, gutako bakoitzak zer-nolako ahalmena duen probatu dezakegu, bizi dugun errealitatearen arazoei konponbide sortzaileak kolektiboki emateko. Hortaz, jolasetan lankidetzaz hitz egiteak esan nahi du beste aldaketa-prozesu batzuen protagonista ere izan gaitezkeela...".

Ondoren, ekintza ludikoaren bidez eta metodologia-ekintzetan jolasa erreferentziatzat hartzen duen HGHEren ildo horretatik jarraituz, beste tresna bat aurkituko duzu, InteRedek argitaratutako *Ludopedagogía, Jugar para Conocer, Conocer para Transformar* (Rivasés, 2017) liburuaren sintesia dena. Metodologia hori Trespiés Kolektiboak erabiltzen du, Uruguaiko "La Mancha" Ludopedagogia Ikertzeko eta Prestatzeko Zentroaren ekarpen teoriko eta praktikoetan oinarrituta. Kolektibo hori lanean aritu zen InteReden, bereziki Aragoiko Ordezkaritzan.

Ludopedagogiak proposatzen duen gizarte- eta hezkuntza-dimentsioetara hurbiltzeko ideia orokor gisa, ideia bat azpimarratzen dugu, liburuaren sarrerako atal batean adierazten dena: "Ludopedagogiak bizi garen eta partaide garen errealitatea bilatu, sustatu eta aldatu nahi du. Hori da guren asmo politikoa. Gure eginkizuna jolasetik abiatuta taldeka lan egitea da, eraldaketa indibidual eta kolektiboko espazioak bultzatzeko. Mundu bidezkoago, zuzenago, askeago eta zoriontsuago baten alde jolasten gara. Jolastuz, mundua aldatzen dugu" (Rivasés, 2017).

Bi metodologietan, jolas kooperatiboetan nahiz Ludopegagogian, jolasa eta jolastearen dimentsio guztiak **modu bat dira tokiko errealitate soziala ikuspegi globalez eraldatzeko, prozesu indibiduala eta prozesu kolektiboak errespetatuz eta generoa, giza eskubideak eta Zaintzen Etika landuz**.

Espero dugu, benetan, hurrengo orrialdeetan jolasteko gogoa aurki dezazun.

1. Jolas kooperatiboak

Zaila da jolasa hitzaren edo jolasteko ekintzaren definizio bakarra egitea, eta gauza bera gertatzen da gizarte-zientzia edo zientzia filosofiko bakoitzak horri buruz dituen ikuspegi eta ñabardura guztiak kontuan hartu nahi baditugu. Ikuspuntu sozial, psikologiko, antropologiko, hezitzaile, pedagogiko nahiz filosofikotik begiratu diezaiokegu; are gehiago, biologia-, ingurumen- eta geografia-aldagaiekin ere lot dezakegu, dokumentu hau aberaste aldera. Jolasa plazer-iturri da, eta berez xede bat ere bada. **Jolasteagatik bakarrik jolasten gara, eta jarduera horrek plazerra eragiten die jolasten direnei**. Jolasak berezko gaitasuna du helduak eta haiek barnean daramaten haurra harremanetan jartzeko.

Alde horretatik, oso garrantzitsua da ohartzea **jolasa gauzak adierazteko modu bat dela**, eta haren bitartez, pertsona bakoitzaren pentsaera eta sentitzeko modua islatzen direla; hau da, pertsonaren izatearen adierazpen bat da. Terry Orlickek dioen bezala (Gallegok aipatua, 2104), "jolastea bitarteko ezin hobea da gizarte-ikaskuntza positiborako; izan ere, naturala, aktiboa eta oso motibatzailea da (...). Jolasek etengabe inplikatzen dituzte pertsonak ekintza-, erreakzio-, sentsazio- eta esperimentazio-prozesuetan". Hori dela eta, eta jolasean oinarrizko eskubidea den aldetik, **testuinguru libre eta borondatezko** batean jolastu behar da. Librea, parte-hartzeari dagokionez, eta borondatezkoa, parte hartzeko moduari eta jolas bakoitzaren garapenean ezartzen den ondorengo feedbackari dagokionez.

Jolasa pertsonaren adierazpen- eta garapen-modu bat dela ulertzeko eta ikusteko ildo horri jarraituz, baina bizitza zer gizarte-ingurunetan garatzen den kontuan hartuta, Maite Garaigordobilek (Gallegok aipatua, 2014) honako hau adierazten du: "jolasak oso eginkizun garrantzitsua du gizakien nortasunaren eraketan. Jolasa funtsezko premia bat da; giza garapenerako ezinbestekoa, esango nuke. Gorputzaren eta zentzumenen garapena sustatzen du, bai eta haurren pentsatzeko gaitasuna eta sormena ere. Komunikatzeko, sozializatzeko eta garapen moralerako tresna ahaltsua da, bai eta emozioak adierazteko eta kontrolatzeko tresna bat ere, oreka psikikoa eta osasun mentala sustatzen dituena".

Pascal Derú (Gallegok aipatua, 2014) are urrunago doa, eta bere esperientzian oinarrituta, jolasak gizarte-ingurune horren eraldaketan daukan indarra aurkezten digu, jolasa honela deskribatuz: "Bizitzan aurrera egiteko urrats txikiak. Jolastea bizitzan zerbaiten alde egitea da, globalizazio-ideia bati aurka egitea. Jolastea denbora lapurtzen digun gizarteari aurre egitea da, denbora berreskuratzea. Jolas kooperatiboetan aritzen garenean, harremanak berreskuratzen ditugu. Jolas kooperatiboetan, beste pertsonen indarrak aukera bat dira niretzat. Jada ez dago mehatxurik. Orduan garen bezala adieraz gaitezke".

Zer da jolas kooperatiboa?

Jolas kooperatiboak AEBn eta Kanadan sortu ziren 60ko hamarkadan, enpresa-munduan. Enpresetako zuzendaritza-taldeek lankidetza-dinamikak erabiltzen zituzten lan-taldea indartze aldera. Berehala ohartu ziren langileen errendimenduak gora egiten zuela, baita produktibitateak oro har ere. Hamarkada bat geroago, psikologo alemaniarrek Europara ekarri zituzten, eta aire zabaleko jolasen barne-mekanismoak egokitu zituzten, bai eta mahai-joko kooperatiboak sortu ere. Ez da kasualitatea jolas-mota horiek bide hori hartu izana Europan sartzeko; izan ere, garai hartan, Alemania bitan zatituta zegoen. Hala, banandutako gizarte bateko biztanleak hurbiltzeko erabili ziren jolas kooperatiboak.

Hauek dira **jolas kooperatiboen oinarrizko ezaugarriak**: denok elkarrekin eta aldi berean irabazten edo galtzen dugu; ez dugu pertsona baten aurka jokatzen, baizik eta kanpo-elementu baten aurka; helburua jolasak botatako erronka bat gainditzea da; jolasten ari direnen artean laguntzeko aukera bat dago, gutxienez.

Ezaugarri horiek oinarri hartuta, Terry Orlick (Gallegok aipatua, 2014) jolas kooperatiboen inguruan proposatutako ideia aipatu behar da: "Besteekin jolastea, ez besteen aurka. Erronkak gainditzea, ez besteak gainditzea". Autore horrek berak 1978. eta 1986. urteetan argitaratutako bi argitalpenetan adierazi zuen Mendebaldean oso arraroak direla egiaz kooperatiboak diren jolasak, galtzailerik gabekoak, eta hori gure gizarteak arautzen dituen egitura lehiakorreko sistemaren ondorio da. Egoera horren aurrean, **Orlickek ezaugarri hauek dituzten jolas kooperatiboak proposatzen ditu**: arauak aldatzeko eta moldatzeko aukera ematen dutenak; material gutxirekin edo materialik gabe jolastekoak; edozein jolasteko modukoak; edonon jolasteko modukoak; eta aurrez denborarik zehaztuta ez dutenak. **Eta lau ardatz izango dituzte:** lankidetza, onartzea, parte-hartzea eta dibertsioa.

Horren guztiaren ondorioz, Orlickek dio **pertsonak askatu egiten direla, jolastea beste helbururik ez duen esperientziaz gozatzeko**. Horrez gain, adierazten du gauzarik garrantzitsuena pertsonei laguntzea dela, ohar daitezen garaipenean eta porrotean balio bera duten gizakiak direla.

Horretan oinarrituta, hiru premisa ondoriozta ditzakegu: **pertsonak, inguruneak eta, azkenik, errealitateak elkarri eragiten diote errealitatean**, zatiezinak dira; jolasak garapen pertsonala sustatzen du, haren alderdi guztietan; pertsonok –bereziki, haurtzaroan– errealitatearekin jolastuz, hura imitatuz eta baieztapen-prozesu baten bidez berrinterpretatuz ikasten dugu.

Horregatik, jolasaren bitartez, errepikatu egiten dira bizi garen munduaren pentsatzeko, sentitzeko eta ekiteko moduak. Mundu hori hazkunde mugagabean oinarritutako sistema batek arautzen du, eta objektuak eta pertsonak haien balio monetarioaren arabera balioesten ditu. Gainera, tokiko eta munduko dinamikek errepikatu egiten dituzte azaleratutako alderdiari –agerikoari, balioa duenari; hau da, merkatuari– lotutako sentitzeko, pentsatzeko eta ekiteko moduak. Esparru horretan, lehiakortasuna da nagusi ekiteko eta bizirik irauteko eredu gisa, eta horrek genero-desparekotasunak eragiten ditu pertsonen artean, daukaten eta ez daukaten pertsonen artean, onenaren eta txarrenaren artean, handiaren eta txikiaren artean, denaren eta ez denaren artean, etab. Gizartean txiki-txikitatik jasotako balioen emaitza da hori, ikusten diren ereduena, bai eta gauza jakin batzuk egiteagatik edo ez egiteagatik jasotako indargarri edo pizgarrien emaitza ere.

Hala, **lehiakortasuna zalantzan jartzea boterearen nozio nagusia zalantzan jartzea da**. Lehiakortasuna, horren batura zero den botere-borroka gisa ulertuta ("**boterea beste zerbaiten gainean**"); hau da, pertsona baten boterea handitu egiten da, beste bat ahultzen den heinean. Harremanak egiteko eta ekiteko modu berriak sustatu behar ditugu, dinamika horrekin hautsiko dutenak, eta jolas kooperatiboak horretarako tresna bihur daitezke. Jolas kooperatiboen oinarrian elkartasuna eta lankidetza daude, eta balio horiek ikusgarri egiten dute eta nabarmentzen dute beste botere mota bat, batura positiboa duena. Hau da, talde osoari mesede egingo dion xede bat lortzeko jolasten gara ("**boterea zerbaitetarako**"), eta horretarako, ezinbestekoa da guztion parte-hartzea ("**boterea norbaitekin**"), jokalari-talde osoak irabazten edo galtzen baitu.

Testuinguru horretan, pertsona bakoitzak bere lekua du taldean, eta onartua eta aintzat hartua sentitzen da; horrela, norberaren autoestimua sustatzen da ("**barne-boterea**"). Hala, jolas kooperatiboen bitartez esperimentatzea eta heztea lagungarria da norbera eta taldea ahalduntzeko. Norberaren aukeren, komunikaziorako, ekintzarako eta abarretarako gaitasun pertsonalen esperimentazio-eremu bihurtzen dira, eta lagungarri izan daitezke norbera zein taldea sendotzeko, bai eta gizarte-eredu bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzeko ere.

Jolas kooperatiboei buruzko zertzelada metodologikoak

Lankidetza prozesu bat da eta, horra iristeko, lagungarriak dira beste pertsona batzuekin bizi izandako jolasak. Ondoan dudan pertsonaz fidatzen ez banaiz, begiak itxita ditudanean gidatzen nauenaz edo neure buruari erortzen uzten diodanean eusten nauen horretaz, eta taldeko pertsona bakoitzari dagokion balioa ematen ez badiot eta pertsona horien gainetik nire iritziak eta proiekzioak jartzen baditut, orduan, lankidetza ez da posible izango.

Xesús R. Jaresen aburuz (Gallegok aipatua, 2014), "oro har, jolasak hainbat irizpideren arabera sailkatu daitezke. Gure kasuan, taldearen egitura kooperatiboan pixkanaka sakontzeko irizpidearen aldeko hautua egin dugu; horretarako, **aurkezteko eta elkar ezagutzeko** jolasekin hasten gara ezinbestean, komunikatzeko beste jarrera eta trebetasun batzuk garatzen hasi aurretik". Horien ondoren, taldeko pertsonen arteko **komunikazioa** erraztuko duten jolasak egiten dira eta, horrekin batera, konfiantza-jolasak. Norberaren eta taldearen **konfiantza** behin finkatu eta integratu ondoren, **lankidetza** bizitzeko unea da. Paco Cascónek (Gallegok aipatua, 2014) eskailera baten mailen antzera irudikatzen

du prozesua: aurretiko mailak eraiki behar dira, esperientzia kooperatiboak baliatu baino lehen.

Eraikitzen ditugun maila horiei esker, eraldatzeko tresna bihurtzen dira jolas kooperatiboak. Horretarako, esperimentazioan oinarritutako metodologia bat erabiltzen dugu. **Ikuspegi sozioafektibotik egiten da lan**, afektuen eta bizipenen alderdia sustatuz; hala, aukera ematen zaio pertsonari bere osotasunean –buruarekin, gorputzarekin eta emozioekin– hezkuntza-prozesuan parte hartzeko.

Ikaskuntza-prozesuak hiru une ditu. Lehengoa **SENTITZEA**, nork bere larruazalean nabaritzea. Bigarrena **PENTSATZEA-HAUSNARTZEA** jolasean sentitutakoari eta bizi izandakoari buruz; taldean adieraztea eta konpartitzea; ikaskuntzak ondorioztatzea; jolasean bizitako gatazka txikien eta emozioen egunerokotasuna baliatzea, gure egunerokoarekin eta munduarekin lotzeko. Eta hirugarrena **JARDUTEA**, taldean eta, hedaduraz, gizartean bizikidetza demokratikoa lortzeko; ahalduntzea, banakako eta taldeko aldaketaren eragile gisa.

Hortaz, ikuspegi sozioafektiboari esker, balioak, jarrerak eta edukiak ikasteaz gain, esperimentazioaren ondorioz ere ikasiko dugu, eta hortik abiatuta eraikiko ditugu ezagutzak taldean. Hezkuntza-prozesua irakatsi eta ikasteko prozesu gisa ulertzen da, partaideen arteko jakintza-elkarrizketa gisa. Horrenbestez, herritar kritikoak sortzeko prozesu bihurtuko da, eta garatzen den tokiko eta munduko errealitatearen protagonista izango da.

Halaber, Paco Cascónek (Gallegok aipatua, 2014) hiru etapa horietan oinarritutako metodo bat aipatzen du, baina ez dio izenik ematen: “Lan egiteko modu horizontal, parte-hartzaile eta ludikoan sinesten dugu, denok gure azalean senti ditzakegun esperientzia eta errealitatetik abiatutako edukiak proposatzen dituena, esperientzia pertsonal eta hurbileko bat bezala, eta hortik abiatuta, sakondu eta aztertu egingo dugu”.

Jolas kooperatiboak eta Hezkuntza Eraldatzailea

Jolas ezagunenek gure gizarte-egitura zehatz-mehatz islatzen dute. Horregatik, hezitzaile garen aldetik proposatuko dugun jolasak errealitatearen irakurketa kritikoa egiten ez badu, jolasak gizartean nagusi diren balio-eskala bera, adierazteko moduak eta harremanak egiteko moduak erakutsiko ditu.

Alde horretatik, **antzekotasun** hauek aurkituko ditugu **gure gizarte-dinamikak arautzen dituen sistema kapitalista, lehiakor eta patriarkalaren eta egitura lehiakorreko jolasen artean**:

GIZARTE POSTMODERNOA	JOLAS LEHIAKORRAK
Kapitala da muina, ez pertsonak.	Irabaztea da xedea, ez pertsonak.
Gizartea mailakatuta dago.	Garaileak eta garaituak daude: 1.a, 2.a, 3.a eta abar.
Harreman bertikalak, botere hierarkikoaren arabera.	Irabazlea besteen gainetik dago (podiuma).
Pertsona batzuek gizarte-bazterketa jasaten dute.	Pertsona batzuk kanporatu egiten dira.
Arauak/legeak zurrunak dira eta ezarrita daude. Sortzeko eta parte hartzeko aukera gutxi.	Arauak eginda eta emanda daude. Elkarrizketarako eta topaketarako aukera gutxi.
Emaitza eta haren kuantifikazioa dira garrantzitsuenak.	Irabaztea edo galtzea eta zenbateko aldearekin da gauzarik garrantzitsuena.
Kapital handiena dutenek izango dute baliabideak eta ongizatea eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera gehien.	Jolasean balioesten den abilezia garatuena daukanak izango du irabazteko aukera gehien.
Presaren eta hazkuntza mugagabearen kultura.	Lehena izatea eta ahalik eta luzaroen da garrantzizkoena.

Hezkuntza Eraldatzailearen agenteak garen aldetik dugun helburua zenbait tresna eta metodo erabiltzea da, oraingo gizarte-sistema errepikatzen duten ekintzetatik zaintzaren, giza eskubideen eta genero-ekitatearen balioak aintzat hartuko dituen beste sistema batera igarotzeko. Jolasteko espazioak eskaintzen ditugunean, jolas kooperatiboa egokia da horretarako. Izan ere, gure gizartearen balio eta jarrera berak jolas lehiakorren bidez errepikatu beharrean, aukera ematen dugu espazioak eta denborak bizitzeko honako hauek

garatzeko: norberaren burua ezagutzea, norberaren burua balioestea eta zaintzan eta giza eskubideetan oinarritutako harremanak egitea.

Taula konparatzaile honetan, ideia hori argiago irudikatu nahi da:

JOLAS LEHIAKORRAK	JOLAS KOOPERATIBOAK
Irabaztea da xedea, ez pertsonak.	Xedea pertsona guztiekin irabaztea da.
Garaileak eta garaituak daude.	Denek irabazten edo galtzen dute, eta aldi berean gainera.
Irabazlea besteen gainetik dago (podiuma).	
Pertsona batzuk kanporatu egiten dira.	Ez da inor kanporatzen, inklusioa dago.
Arauak eginda eta emanda daude. Elkarrizketarako eta adosteko aukera gutxi.	Arauak malguak dira, eta aldatu eta adostu daitezke. Horrek elkartzeko aukera ematen du.
Irabaztea edo galtzea eta zenbateko aldearekin garrantzitsua da. Azken uneak du garrantzia.	Jolasean bizitako prozesua ere garrantzitsua da, eta ez jolasaren amaiera soilik.
Indargune handienak dituzten pertsonek (osasuna, hezkuntza, etab.) izango dute jolasten ari diren jolasean irabazteko aukera gehien.	Pertsonek taldearen esku uzten dituzte beren aukera eta indarguneak, sortutako erronka gainditzeko.
Lehena izatea da garrantzizkoena.	Pertsona guztiak batera iristen dira jolasaren amaierara.

Beraz, **jolas kooperatiboen** bitartez, harremanak egiteko eta ekiteko beste logika batzuk probatu ditzakegu, sistema kapitalista eta heteropatriarkalean nagusi den lehiakortasunetik kanpo. Horrek **aukera ematen du boterearen erabilera konstruktiboa eta kolektiboa** egiteko, eta ohitura horiek gure eguneroko bizitzan sendotzen baditugu, bake-kulturan, bizikidetzan eta giza eskubideetan oinarritutako gizartea eraikitzen lagunduko dugu.

2. Ludopedagogia

Konplexutasun ugari abiarazten ditu jolasaren fenomenoak. Gainetik pasako gara horietako batzuetatik, jakinda bakoitza azaltzeko askoz denbora gehiago beharko genukeela.

Nabariena da jolasten garenean **denboraren bizipena desberdina** dela. Jolasteak denboraren linealtasuna apurtzen du, eta aldi berean jolas ugari egiteko aukera ematen du. Harrapaketan jolasten gara, eta, aldi berean, inor konturatu gabe tranpak egiten jolasten gara, aliatuak bilatzen edo bideratzaileari aurka egiten. Baina kanpotik, harrapaketan gabiltzala ikusten da. Norbera bere historiatik eta oroitzapenetatik abiatuta jolasten da. Gure heldutasunetik jolasten gara, nahiz eta haurtzaroa berreskuratzen dugula sentitu. Jolasteak hel egiten die, aldi berean, gure hiru errealitateei –iraganari, orainari eta geroari–, eta nahasi egiten ditu, eta gogorarazten digu bat bera direla: gu geu.

Hala bada, jolastea gertaera bat da, **errealitateari buruz dugun irudikapena apurtzen duen gertaera bat**: kontzientzia aldatzen duen egoera bat, arrazoimenari eragiten diona. Jolasa errealitatearen eta ametsen arteko hirugarren eremu bat da. Eta bete-betean jolasten garenean, aske sentitzen gara, autonomo, guztiaren parte, arin, alai, sortzaile eta ausart. Gehiago gara, gehiago egin dezakegu, gehiago nahi dugu.

Jolastean, **guretzat ohikoak ez diren eremuetan sartzen gara**: jokoan jartzen ditut neure buruari debekatzen dizkiodan edo gainerakoek debekatzen dizkidaten jarrerak, jokamoldeak eta rolak, karga moral eta sozial handia dutenak. Eta ez dakit nola erantzungo dudan nik eta gainerakoek. Jolastea nork bere buruari beste aldera igarotzeko baimena ematea da, ziurgabetasun pertsonal zein kolektiboan kokatzeko baimena. Horrek berekin dakar taldearen aurrean zaurgarritasunez baina, aldi berean, konfiantzaz agertzea. Jolasa jolasten direnen arteko negoziazio etengabea da, baimenen eta zaintzen ariketa konplexua. Jolasa entsegu-eremu bat da, eta bete-betean jolasten garenean, zaintza inplizitu bat antzematen da.

Gorputzak, afektuak, loturak eta alaitasuna zaintzea eta ulertzea eraldaketa politikorako apustu menderaezina zen, eta orain ere bada. Jolasa, haurren kontu hori, jarduera alferrekoa, entretenitzeko edo denbora galtzeko besterik balio ez duena, beste era batera agertu zen, eta gorputzak, afektuak, subjektibotasunak eta nahi izandako aldaketak erlazionatzeko aukera ematen zuen espazio-denbora propio, sinboliko, anitz, konplexu eta kolektibo gisa agertu zen.

Jolasa, azken batean, beste aukera batzuk probatzen uzten digun jolas libertarioa da. Errealitatearen mapa apurtzera arriskatu nahi dugu, beste mundu posible batzuk imajinatzera animatzeko. Eta sinetsita gaude mundu horiek eraikitzeko beste bide batzuk esploratu behar ditugula, agian eroagoak, agian deserosoagoak, zentzurik gabekoagoak, jakintza eraikitzeko logika hegemonikoak hautsiz, eta sistemaren ardatzean pertsonak egongo diren errealitate bat eraikitzeko modu marjinalak eta subertsiboak aurkituz.

Zer da Ludopedagogia?

Ludopedagogia hitza adiskide batzuek asmatu zuten taberna batean. Denbora asko zeramaten jolasarekin lanean, oso modu zehatz, espezifiko eta askatzailean. Eta jardun xumea egiten zutenez, izen xumea eman zioten: jolas-tailerrak. Baina Uruguain diktadura amaitu zenean, 1985. urte aldera, kanpora irteteko garaia heldu zitzaien lagun haiei, beren jolas-tailerrak mugaz haraindi eramateko. Baina Jolas Tailerrak izena ez zen egokia iparraldean, ez zetorren bat beti berrikuntzari lotuta joan nahi duen garapenarekin, Ongi Bizitzea nahikoa izango ez balitz bezala. Eta mesedez jarduera haiei izen bat emateko eskatu zieten. Horrela erabaki zuten beren jardunari Ludopedagogia esatea. Montevideoko (Uruguai) “La Mancha” Ludopedagogiako Ikerketa eta Prestakuntza Zentroko lagunek asmatu zuten proposamen metodologiko konplexu hori duela 30 urte inguru, eta oraindik ere beren jolasekin ikasten jarraitzen dute.

Jolastea, jolasak eta jolasean ari direnak erlazionatuta daude, baina desberdinak dira, eta arrazionaltasuna aldatu den espazio/denbora berezi batean gertatzen dira; horri Errealitate Ludiko deritzogu. Interakzio etengabea eta konplexua duten hiru eremuren artean kokatzen dugu gure ariketa. Triangelu baten barruan, non erpin bakoitza funtsezkoa den eta gainerako bietatik elikatzen den: taldea, jolasak eta bideratzea. Erdian gertatzen da esku-hartze ludikoa, jolasa: hori da esperientziaren agertokia eta sustatzailea.

Ludopedagogiak errealitate ludikoa instalatzea proposatzen du. Hau da, beste errealitate hori instalatzea, erreala ere baden errealitate hori, gure artean kokatzen eta aktibatzen dena, talde bateko pertsona guztiak benetan jolasten ari garenean. Ludopedagogia hauxe da guretzat: kontzeptu eta definizioen bidez azaltzen zaila den tresna konplexu bat; espazio-denbora bat, non gauzak egiten eta gerta daitezen saiatzen garen. Gauza horiek lagundu egingo digute gure ikuspegi ludikoan sakontzen eta aurrez ezarritakotik haratago ikusten,

aukeren sorburuak aurkitzeko eta amesten dugun Ongi Bizitzearen bertsioak une gutxi-asko laburretan zehazteko.

Ludopedagogiari buruzko zertzelada metodologikoak

Gure helburua taldeak esperientzia zehatzak izatea da, eta, horien baitan, jolasak ontzi biltzaile eta irekitzaileak izango dira, jolasek aukera emango dute galderak jaso eta zabaltzeko, baita partaideen arteko loturak zabaltzeko ere.

Hortaz, ezinbestekoa da jolasen ibilbidea planifikatzea eta egituratzea, taldean eta taldearentzat errealitate ludikoa ezartzea lortzeko. Jolasak ez dira dinamika solteak, baizik eta katebegi batzuk, guk bultzatuta taldeak esperimentatuko dituen zentzua eta bizipena eraikitzen dituztenak. Eta taldeak egituratzen du gertatzen denaren gaia. Esku-hartzearen aurretik, behar adina denbora eskainiko diogu, berariaz, amesteari eta plangintza egiteari. Testuingurua oso garrantzitsua da, talde bakoitzak bere behar eta prozesuak baititu. Eta oso zehatzak izan behar dugu, proposamenak partaideen eguneroko esperientziari erantzun diezaion, esperientzia hori ardatz egin dezan eta areagotu dezan.

Une honetan sartzen da jokoan taldea. Ludopedagogian oinarritutako plangintza batean, taldea bost *urratsetatik* igaroko da. Urrats horiek azalduko ditugu, eta gako batzuk ere emango ditugu:

1. **Murgiltzea.** Argi eta irmoki azaldu behar dugu jolasteak ez duela zerikusirik benetako errealitatearekin, errealitate ludikoarekin baizik. Kontu handiz ezinegona sortzea edo samurtasunez zirikatzea da gure helburua: ludopedagogiaren alderdi teknikoaren funtsezko gako bat da hori. Lehenengo proposamenek harridura piztu behar dute beti, zirikatu, konfort-zonatik aterarazi. Ezinegona sortzen dugu, pertsonak beren matrizetik mugiarazi behar baititugu jolas daitezen. Betiere, kontu handiz aritu behar dugu, eta taldearen erresistentziak identifikatzen eta neurtzen saiatu, inor haserrearazi gabe. Pertsonak errealitate ludikoan sartzen hasteko bidea da.

2. **Ongi etorria eta lasaitzea.** Behin barruan gaudela, jolas errazekin hasiko gara: arau sinplekoak, esposizio maila txikikoak, oro har zirkuluan egiten direnak, guztiok abiapuntu berean egon gaitezen. Metodologikoki egokia delako, bideratzaileek ez dugu geure burua modu formalean aurkezten. Zugan jarri nahi dugu arreta; nor zaren eta zer dakarzun tailerrera, horixe jakin nahi dugu, hemen asko baikaude eta guztiok baitakargu zerbait. Bideratzailea ekarpenak egiten dituen beste partaide bat da. Lehenengo

etapa honetan, bideratzailearen funtsezko zeregina bertigoari eustea da: espazio hutsik uzten ez duen erritmoa ezarri behar da, zertan ari garen pentsatzeko astirik ematen ez duena. Agindu irekiak darabiltzagu, hainbat erabaki sor ditzaketenak, eta agindu horiek zehatzak dira; hau da, esan nahi duguna adierazten dute, eta ez beste ezer. Jarduera aurkeztean, hasieran ez dugu ezartzen zer egin daitekeen eta zer ez.

3. **Errealitate ludikoa ezartzea.** Gero, taldea gugana igarotzeko uneak iritsiko dira, trukerako eta harremanetarako espazioak sortzen dituzten eta informazio pertsonala elkarri kontatzea sustatzen duten jolasen bidez. Garrantzitsua da parte hartzen dutenen denborak errespetatzea, jolastea erraztuko dien prozesua egin dezaten. Pixkanaka, pertsonen desberdintasunak eta berezitasunak agerian utziko dituzten beste jolas batzuetarantz aurrera egingo dugu; horrelakoei esker, desberdintasun horiek taldeko tramaren zati izango dira, eta pertsona bakoitza berdingabetzat eta osotasunaren zatitzat aitortzen duen talde bateko kide izatearen sentimendua landuko da. Askotan, bitarteko objektuak erabiltzen ditugu (pilotak, paperak, gutun-azalak, kartoi meheak, etab.), partaideek ez dezaten sentitu beren burua zuzenean agertzen dutela eta objektuan jar ditzaten larritasunak eta tentsioak. Guztiok behar dugu segurtasuna jolasteak dakarren hutserako jauzia egiteko. Segurtasun hori proposamenaren egiturak ematen digu. Bideratzaileak eusten dio proposamenaren egiturari: jolasaren arauak, denbora eta espazioa, eta beraren rola. Denborei eta erritmoei dagokienez, beharrezkoa da ibilbideak pentsatzea, partaideek proposamenak bete-betean esperimentatu ahal izan ditzaten. Ez dugu emozio edo sentipen bat erre behar, ezta taldea estimuluen errusiar mendi batean sartu ere. Taldea zaindu behar dugu, hainbat erregistro landu, erritmo eta prozesu pertsonalei arretaz erreparatu, ea pertsonak jolasean noiz hasten diren. Hurrengo urratsera pasatu aurretik, taldekide gehienak jada jolasean ari direla ziur xamar egon behar dugu. Partaideek hasieran ez zuten baimen- eta askatasun-maila bat lortu dutela adierazten duten seinaleak bilatu behar ditugu.

4. **Ikerketa ludikoa.** Guztiok errealitate ludikoan murgilduta gaudenean, posible denaren mugak ikertu, hautsi eta zabaltzeko aukera emango diguten jolasak proposa ditzakegu. Nork bere buruari bere mugak, rolak edo jarrerak urratzeko baimena ematen badio ere... taldeak hartu, jaso, zaindu eta zabaltzen du baimen hori. Horrexegatik esaten dugu urrats bat egiten dela kolektiborantz, amankomunerantz. Ibilbide horretan eskaini beharreko

zaintza garrantzitsu bat esposizioa mailakatzea eta partekatzea da: esposizio txikiko taldeko jolasetatik kolektibitatearen barruan norbanakoa ezagutzea ahalbidetzen duten jolasetara igarotzea. Gure gorputza da gure lehen muga, eta lortu behar dugu pertsonok gure mugak ireki nahi izatea. Ibilbidearen une honetan, kontaktu, esposizio edo sortze handiagoko jolasak proposatuko ditugu. Azaltzeko, erakusteko eta bateratzeko uneak tailerren etapa honetan ere izaten dira, eta taldea tonu berean jartzeko balio dute, banakako melodia desberdinak sintonizatzeko eta konposizio kolektibo, dibergente, elkartu, konplexu eta berdingabea sortzeko, lantzen ari garen gaiaren ildotik.

5. **Ixtea**. Tailerra ongi ixtea funtsezkoa da. Normalean, papelografo batean adierazten ditugu partaideek hasieratik sentitu dituzten emozioak eta sentsazioak. Guztiak jasotzen ditugu: positiboak, negatiboak eta askotariko harridurak. Emozioak eta sentsazioak berrestea izaki sentipentsatzaileludiko bilakatzeko proposamen politikoaren zati da. Halaber, guztion artean berreraikitzen ditugu egindako jolas eta proposamenak, hurrenkera kronologikoan, bizipeneko desadostasun-puntuak, ordena-aldaketak eta enfasiak erregistratzeko. Ondoren, bizipenak, esperientziak eta norberari jolasean gertatukoa taldearekin partekatzea proposatzen dugu. Horrela, izan daitezkeen eraldaketak ere ikusiko ditugu, hau da, jolastean egin ditugun arau-hausteak, eguneroko bizitzara ere eraman daitezkeenak. Horixe da ixtearen funtsezko xedea; izan ere, ondo ixteak berekin dakar irekitzea. Eta ireki ahal izateko, afektiboki itxi behar dira izan ditugun esperientziak (biziak, atseginak, hunkigarriak). Badakigu tailerraren ondorioek oihartzuna izango dutela partaide bakoitzaren barnean, tailerra ez baita amaitzen jolaserako denbora amaitzean.

Ludopedagogia eta Hezkuntza Eraldatzailea

Funtsean, jolasak bi ezaugarri ditu, jolasarekin egiten dugun lana ulertzeko bi ikuspegi izateko aukera ematen duena. Jolasa helburu sozio-hezitzaileak lortzeko tresna lagungarria izan daiteke, bai eta gizakien premien asetzaile sinergiko bat ere. Ez dago amildegirik bi ikuspegi horien artean, jolasak beti egiten baitio ihes hura atzemateko ahalegin orori. Nolanahi ere, jolasarekin lan egitean, argi izan behar dugu mendiaren zer aldetatik igo nahi dugun. Funtsean eta laburbilduz, jolasa ulertzeko bi modu daude: zertarako jolastu eta zertan jolastu.

- **Zertarako jolastu...** Eskuarki, aldez aurretik ezarritako helburu edo emaitza bat lortzeko erabiltzen da jolasa: tresna edo bitarteko gisa. Jolasaren erabilera hori oso ohikoa da arlo sozio-hezitzailean eta, besteak beste, honela adierazten da: "elkar ezagutzeko jolas bat egitea" edo "garapen kontzeptua lantzeko jolas bat egitea". Jolasaren egiturek (gordeketa, aulkiak...) kontzeptu, jarrera edo ideia gutxi-asko konplexuak transmititzeko tresna lagungarri gisa funtzionatzen dute. Hortaz, galdu egiten dute, nolabait, jolasaren dimentsio kolektiboa, jolasean ari garenon artean elkartzeko eta (berr)eraikitzeko espazioa... eta, nola ez, geroan pentsatu gabe jolastearen gozamena.

- **Zertan jolastu...** Beste aukera bat jolasa ardatz gisa hartzea da, jolasa fenomenotzat hartzea eta jolasean ari diren pertsonekin eta haien bidez arnasa har dezan uztea. Hala ulertuta, jolasarekin lan egitea jolasean ari den taldea errealitate ludikora igaro dadin lortzea da: denborak eta espazioak antolatzea, jokalariek beren burua baimendu dezaten, arauak eta beren mugak urra ditzaten, birsor daitezen eta askatasunez elkartu daitezen. Beste era batera esanda: gauza gehiago biltzea, nork bere buruari gehiago baimentzea, eta, ondoren, errealitate ludikoan gertatu zaigun guztia edo zerbait eguneroko errealitatera eramatea.

Ludopedagogiak eraginkor bihurtzen du apustu politiko eta pedagogiko bat: ez dugu gure errealitatea atsegin eta aldatu egin nahi dugu. Jolasteko gaitasuna berreskuratzea, berriz balioestea eta birsortzea da proposamena; jolastea bidaia bat da, errealitatea berraurkitzeko, ikertzeko, iraultzeko, berregiteko eta eraldatzeko. Paulo Freirek esandakoari jarraituz, pedagogikoki metodologia honen helburua da ezagutza taldean eraikitzea eta irakasle/ikasle rolak gainditzea, galdera, jakin-min, ikerketa eta esperimentazio kolektibo eta komunitariorako espazioak sortuko dituen harreman baten bidez.

Jolasean dena da posible, eta hauxe da jolasaren balio politikoa: aukera ematen du zalantzan jarri, urratu, berregin, suntsitu eta eraikitzeko, eta beste ba-tzuekin izan, egon eta egiteko bertsio pertsonal eta kolektibo berriak probatzeko; horren ondorioz, ekintza eraldatzailearen etorkizun sinbolikoa eta erreala irekitzen lagunduko duten subjektibotasun errebeldeak sortzea sustatzen du.

Mariano Algavak (Rivasések aipatua, 2017, 23. or.) alderdi ludikoak herri-hezkuntzan betetzen duen funtzioa azaltzen du, eta zerikusi handia du

HGHErantz eman nahi dugun urratsarekin: “Eredu ludikoan eutsi egin behar zaio zalantzari, gogaikarri eta sortzaile; eutsi egin behar zaio gizakien osogabetasun berezkoari, hura baita historia eraikitzen duen bilaketaren eta ekintzaren motorra. Hortik sortu da galderaren pedagogia, eta ez erantzunaren edo jakintza absolutuen pedagogia. Hortik dator ezagutzaren eraikuntza kolektiboa, eta ez kritikarik gabeko errepikapena, esanekoa eta obedientea.”

Horregatik guztiagatik gonbidatzen zaitugu irakurtzen jarraitzera, nork bere barrua miatzen eta ludikotik artistikora igarotzen jarraitzera, adierazpen pertsonalak eta sozialak egiteko modu bat baita.

Metodologia artistikoak

Modulo honetan honetan dauden metodologiek **erreferentziatzat hartzen dute jarduera artistikoa HGHEren bidean, antzerkiaren eta plastikaren arloetan**.

Lehenengotik hasita, InteRedek urteak daramatza gorputz-adierazpenean –jolasaren eta antzerkiaren arteko nahasketa bat– oinarritutako autoezagutza- eta eraldaketa-modu bat sustatzen, eta izen hau eman diogu: teknika ludikoteatralak. Antzerkia egiteko hainbat korronte eta modu daude, eta guk zapalduaren antzerkiak erakusten duen ikuspegiari helduko diogu. Bi arrazoi nagusi ditugu horretarako: batetik, lan introspektiboa ahalbidetzen duen metodologia bat delako, helburu eraldatzailea lortzeko talde-lana sustatuz; eta bestetik, sortutako antzezlana antzezteko aukera ematen duelako, horrek dakarren ondorio biderkatzailearekin.

Zapalduaren antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralei buruzko testu hau **Paulo Freire eta Augusto Boalen** lanetan oinarritu da (bibliografiako atalean kontsulta dezakezu). Hego Amerikatik datozen esperientzia eta gogoetetan oinarritutako lehen mailako iturriak dira, eta azken hamarkadetan baliotasuna erakutsi dute Europan ere, Ludopedagogia oraintsu erakusten ari den bezala. Hemen azaldutako metodologia proiektu honetan ere oinarrituta dago: *Jugar y Actuar, Nuestras Armas para la Paz. Juego Teatral y Procesos Colectivos de Aprendizaje* (2012). InteRedek burutu zuen proiektua María Díazen eta Nicolas Osten laguntzarekin, eta zenbait esperientziatatik praktikak eta gogoetak lantzeko argitaratu zen, zenbait irakasleren ekarpenekin.

Ziurrenik atal honetan landuko dugun metodologiaren aberasgarritasuna ere izango da hori, espresio eta ekintza artistiko guztietan barne munduko zerbait

atera eta beste pertsonekin konpartitzen da. InteRed Andaluziako Delegazioa hezkuntza prozesuetan **Arteterapia** erabiltzen aitzindariak izan dira, testuinguru formal eta ez formalean, eta beste eremu sozialetan. Lan honek InteRedek argitaratutako Inmaculada Sánchezen *Universo de Emociones, Experiencias de Arteterapia y Cuidados para la Movilización Social desde la Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global desde un Enfoque de Género* (Sánchez, 2014) liburuan adierazitako ideiak erantzuten ditu. Lan honekin, herritartasun arduratsua eta eraldatzailea sortzeko, arteak eta sormenak eskaintzen diguten aukeren inguruan hausnartu nahi dugu, genero eta zaintzen ikuspuntutik, Garapenerako Hezkuntza eta Herritartasun Globalerako tresna bat izango delarik.

Horrela, bada, InteRedek egiten duen ikerketan eta berrikuntzan, azken urteetan artearen alde egin dugu haren zentzu zabalenean, geure burua eta mundua eraldatzeko modua den aldetik. Aipatutako liburuan, gizarte- eta hezkuntza-errealitate desberdineko hiru esperientzia zehazten dira, metodologia hori bide eraldatzailetzat hartzen dutenak. Proposamen hau sustatu dituzten irakasleak, alor psikosozialeko profesionalak eta elkarteak aurkitu ditugu, eta gaur egun ere balioetsi egiten dute eta aztertzen jarraitzen dute.

Ondoren, hezkuntza-jarduerara hurbiltzera gonbidatzen zaitugu, jarduera hori edo zure motibazioa edozein izanik ere, zure izatetik, zure gorputzetik, zure emozioetatik eta zure gogotik abiatuta. Gure iritziz, hezitzaileak garen aldetik, hauxe da ahalmen eraldatzaile handiena: benetako lotura bat eratu ahal izatea, beste komunitate-espazio batzuetan ikasleei ukatzen zaiena

1. Zapalduaren Antzerkian oinarritutako metodologia ludikoteatralak

Arestian aipatu dugun bezala, bi izen ageri dira metodologia honi heltzen diogunean, biak brasildarrak: **Paulo Freire** (1921-1997) eta **Augusto Boal** (1931-2009). Lehena **zapalduaren pedagogiaren** ideologoa izan zen (1970); Augusto Boalek, berriz, **zapalduaren antzerkia** izeneko metodologia bat garatu zuen antzerkiaren esparruan (1960).

Zabalak eta sakonak dira Paulo Freirek utzitako esperientziak, pentsamenduak eta lanak, eta, beraz, labur-labur testuinguruan kokatzea komeni da. Zapalduaren pedagogia **pedagogia kritikoaren** barnean dago (ikasleek beren bizitzari buruz idazteko premia sumatu behar dute, eta beren errealitateari buruz irakurtzeko), eta hortik edaten du zapalduaren antzerkia, gizartearen erreali-

tatea adierazteko teknika gisa, antzerkiaren bitartez gizarteko errealitate hori eraldatzeko.

Paulo Freirek azpimarratzen du **hezkuntzaren profesionalek, arlo guztietan, jarrera iraultzailea izan behar dutela**. Alde batetik, pertsonak ideologia zapaltzaileaz kontzientziatzeko; eta, bestetik, klase zapalduak askatzeko. **Askapenaren teorian** azaltzen duen bezala, hezitzaileek garbi ikusi behar dute menderatzeak zer forma hartzen dituen, zer izaera duen eta zer arazo dakarzkien indar subjektibo nahiz objektibo gisa nabaritzen duten pertsonei.

Gogoeta hori sortu zen Hego eta Erdialdeko Amerikako herrialde gehieneko diktaduren garai bete-betean, neurri handi batean herrialde aberatsek sustatuak, AEBk batez ere (botere-harreman horiek oso ondo dukumentatu zituen Eduardo Galeanok *Las Venas Abiertas de América Latina* lanean. Une hartan, mugimendu armatu iraultzaileak ere agertzen hasi ziren, hala nola Fidel Castrok eta Ernesto Guevarak sustatutakoak eta askapen nazionaleko armadak, geroago, Mexikon, Askapen Nazionaleko Armada Zapatista bihurtu zirenak.

Testuinguru iskanbilatsu horretan, Augusto Boalek antzerki-joera bat sistematizatu zuen: zapalduaren antzerkia. Horren ondorioz, ekintzaile sozial eta kultural bihurtu zenez, espetxeratu egin zuten, eta, geroago, erbesteratu behar izan zuen. Dena dela, *Juegos para actores y no actores* (2002) liburuan adierazten duen bezala, Hego Konoko herrialde gehienetan jadanik testuinguru demokratikoagoak zeudela, egoera batzuetan zapalkuntza ez zegoen hain garbi definituta. Diktaduretako asko deuseztatu egin ziren, baina zapalkuntzak bere horretan jarraitzen zuen diktaduren garaietako kolektibo beretan; esaterako, bikote heterosexualetako emakumeak, seme-alabak gurasoen aurrean, eta ikasleak irakasleen aurrean. Aurrez aurreko horiek ez ziren antagonikoak; izan ere, posible zen, eta desiragarria, gatazkan murgilduta zeuden alderdiak baketzea.

Bere lanean, Augusto Boalek zapalduaren antzerkia eta beste teknika ludikoteatral batzuk erabiltzen zituen, hala nola jolasa, **foro-antzerkia** (ikusleak lanaren problematikan esku hartzera eta irtenbideak ematera bultzatzen dira), **kazetaritza-antzerkia** (antzezlanean albiste bat agertzen da), **irudi-antzerkia** (antzezlaneko ekintza bakoitzaren edo hitzen subjektibitateetan sakontzen du) **antzerki ikusezina** (kalean egiten da, aldez aurretik iragarri gabe), **desiraren ortzadarra** eta beste hainbat.

Zer dira Zapalduaren Antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralak?

Nabarmendu behar da, antzerkiz hitz egin arren eta burura butakaz beteriko areto bat, ikusleak, eszenatokia eta artistak etorri arren, aipatu dugun

metodologia erabiltzen duen antzezlan batean ez dago ikuslerik, baizik eta, Augusto Boalek dioen bezala, ikusle aktiboak, eta "grabitate-zentroa, eszenatik lekualdatu, eta areto/patio ardatzean kokatzen da".

Autore horri jarraituz, zapalduaren antzerkiak antzerki hitzaren adiera arkaikoena adierazten du: gizaki guztiak dira aktoreak, antzeztu egiten dutelako; eta ikusle, ikusi egiten dutelako. Antzerki-modu horren oinarrian, ikusleari ekintza dramatikoaren protagonista izaten laguntzen zaio, antzezlanean entseatu dituen jarduerak bizitza errealera eraman ditzan.

Zapalduaren Antzerkiaren Nazioarteko Erakundearen Printzipioen Deklarazioaren arabera, zapalduaren antzerkiaren oinarrizko helburua gizadia humanizatzea da. Gizaki izatea antzerki izatea da: aktorea eta ikuslea batera existitzea gizabanako berean. Gizaki bakoitzak jarduteko duen gaitasuna da abiapuntua: bizirik irauteko, jardutea beste modurik ez dugu, eta jarduera horiei eta kanpoko munduan dituzten ondorioei erreparatu behar diegu. Alde horretatik, gizaki orok erabiltzen du, bere eguneroko bizitzan, aktoreek eszenatokian erabiltzen duten hizkuntza bera: haien ahots, gorputz, mugimendu eta espresioek haien ideia, emozio eta desirak itzultzen dituzte; beraz, gizaki orok du antze zteko gaitasuna.

Zapalduaren antzerkiak metodo bat eskaintzen digu, nork bere iragana oraingo testuinguruan analizatzeko, eta etorkizuna asmatu ahal izateko. Sentituz ikasten dugu nola sentitu; pentsatuz, nola pentsatu; jardunez, nola jardun. **Zapalduaren antzerkia errealitaterako entsegu bat da, eta giza harreman guztiek elkarrizketa bat izan beharko luketelako premisan oinarritzen da**: hartu-eman aske bat pertsona askeen artean, gizartean eskubide berdinekin esku hartuz, eta elkarren arteko desberdintasunak errespetatuz. Funtsezko printzipioa elkarrizketa berreskuratzen laguntzea da.

Horregatik, zapalduaren antzerkia jendea sustatzen ahalegintzen da, antzerkiaren fikzioan jardutera bultzatuz, protagonista bihur daitezen, nor bere bizitzaren subjektu aktibo. Horretarako, funtsezkoa da norberari eta besteei buruzko aurkikuntzak egitea, gure nahiak argitzea eta adieraztea, eta besteenak ulertzea. Sufrimendua eragiten duten egoerak aldatzeko tresna bat da, bakea eragiten dutenak goresteko, gizabanakoen eta taldeen arteko aldeak errespetatzeko, eta gizaki guztiak aintzat hartzeko. Azkenik, tresna bat da justizia ekonomiko eta sozialera iristeko, hori baita benetako demokrazia baten oinarria.

Zapalduaren antzerkian, **parte-hartzaileek beren zapalketen irudiak sortzen dituzte**, kontzientzia- eta erantzukizun-ekintza bat eginez: jada ez gaituzte gidatzen, gu gara gidariak. Besteen emozioek jada ez naute inbaditzen; nik neure emozioa proiektatzen dut. **Jardueraren subjektua naiz**: pertsona zapaldua artista bihurtzen da. Pertsona zapaldu/artistak artearen bidez eratzen du bere mundua. Irudiak sortzen ditu, bere bizitza errealetik bere zapalketa errealetatik abiatuta. Orain bi mundu autonomo horien partaidea da: errealitatearena eta sortu duen errealitatearen irudiarena.

Gu guztion antzerkia da. Norberaren kontakizunetik hastea ezinbestekoa da, bai, baina horrek talde-dimentsioa hartzen du zapalketa-egoerarekin eta zapalketa-sentimenduarekin izaten den enpatiaren bidez. Partikularretik abiatuta, prozesua talderantz doa. Eta bere zapalketaz jabetzen den pertsonak (eta ez artistak haren izenean) antzerki-fikzioan jarduera bat egiten badu, horrek gaitasuna emango dio bizitza errealean ere egiteko, eta, beraz, gizartea eraldatzeko agente bihurtuko da.

Zapalduaren Antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralen zertzelada metodologikoak

InteReden, eta HGHEn barruko kolektiboekin batera egindako lanaren bitartez, Augusto Boalen teknikan oinarritutako metodologia bat landu dugu, eraldatu daitezkeen hurbileko espazioetara eramateko, premisa honetatik abiatuta: antzerkia egitea gorputza, emozioa eta jarrera da.

Orain arte ikusi ditugun eta geroago ikusiko ditugun gainerako metodologiak bezala, metodologia hau ere introspekzio pertsonaleko prozesu bat egiten saiatzen da, taldera eta gizartea eraldatzera bultzatzen gaituena. Augusto Boalek "El Arco Iris del Deseo" liburuan adierazten duen bezala (Boal, 2004), "zapalduaren antzerkiaren teknika introspektibo gehienak inprobisazio batekin hasten dira, protagonista bihurtzen den parte-hartzailearen bizitzatik ateratako gertaera errealetatik abiatuta".

Prozesu hori faktore askok baldintzatzen dute, hala nola denborak, espazioak, parte-hartzaileek eta profesionalek. Hala ere, egin nahi dugun saio edo prozesuan, sei bloke hauek aurkituko ditugu: onartzea eta harrera egitea; gorputza mobilizatzea, zentzumenak eta imajinazioa aktibatzea; harremanak ehuntzea, komunitatea sortzea; ideiak ematea, emozioak partekatzea; sinplea konplikatzea, gelditutakoa dinamizatzea; bizi izandakoa jasotzea eta finkatzea.

Jolasen eta ariketen lehen hiru blokeak (**onartzea, mobilizatzea, harremanak ehuntzea)** garrantzitsuagoak dira hasieran, bai banakako saio batean, bai epe luzeagoko prozesu batean. Hain zuzen ere, lan-saio baten hasieran, sortze- edo ikaste-prozesu luzeago baten hasierako fasean bezala, taldea finkatzea eta kideen arteko konfiantza lortzea da eginkizun nagusia. Gauza bera gertatzen da gorputza eta emozioak sustatzearekin: konfiantza handitzen den heinean eta parte-hartzaileek ahotsa, imajinazioa eta gorputza mobilizatzeko zailtasun gutxiago duten neurrian, pixkanaka beste alderdi batzuk ere sar ditzakegu, eta jolas horiekin ematen dugun denbora murriztu. Hala ere, jolas eta ariketa horiek inoiz ez ditugu erabat alde batera utziko, beti baita beharrezkoa konfiantza, gorputzen arintasuna eta imajinazioa lantzea, puntu-puntuan eduki nahi baditugu.

Laugarren eta bosgarren blokeetan (**eztabaida, ideiak bateratzea, historiak, emozioak eta berrikustea lantzekoak**), **talde-lanak eta gatazkari buruzko lanak** bilduko dira, parte-hartzaileek elkarrekin mugitzeko, barre egiteko, elkar ukitzeko eta elkar gidatzeko aukerak dituzten neurrian. Barrura begiratzeko eta bizi izandakoa partekatzeko zenbat eta une gehiago esperimentatu, orduan eta errazago egingo zaigu bi bloke horietako jolasei eta ariketei heltzea.

Azkenik, seigarren blokearen bidez –zeharkakoa da saio edo prozesu guztiekiko–, beste edozein jolas edo ariketatan **bizi izandakoa sentitzeko, aztertzeko eta konpartitzeko aukera ematen diguten dinamikak sustatu** nahi dira. Gure iritziz, ariketa horiek beharrezkoak eta oso baliagarriak dira edozein ikaskuntza-prozesu ebaluatzeko, haiei esker uler baitezakegu prozesuko zer unetan gauden, parte-hartzaile bakoitza eta taldea prozesu hori nola ari diren garatzen eta zer ikaskuntza ditugun oraindik gure aurrean.

Askotan, banakakotik taldera doan ikaskuntza-prozesu sortzaile horretatik igaroz gero, erakargarria da sozialeranzko jauzia egitea. Horretarako, beste teknika batzuk ere landu daitezke; adibidez, foro-antzerkia. Taldeak lan bat diseinatzen badu, espazio batean antzez dezake eta ikusleek antzezlanean esku har dezakete, aurkezten den problematikari irtenbideak emanez. Beste horrenbeste gertatzen da antzerki ikusezinarekin: diseinatu den lana kalean antzezten da, hirian bizi diren pertsonen ohiko erritmoa eraldatzen saiatuz.

Zapalduaren Antzerkian oinarritutako teknika ludikoteatralak eta Hezkuntza Eraldatzailea

Herritarra izatea eta munduan nola parte hartzen, ulertzen eta sentitzen dugun lotuta daudela ulertzen badugu, orduan ulertuko dugu herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzaileak berekin dakarrela konpetentzia intelektual, emozional eta jarrerazkoak garatzea, gu geu eta gure ingurunea modu aktiboan eraldatzeko.

Antzerkiaren aldaera guztiak, eta **zapalduaren antzerkia bereziki, emozio- eta jarrera-ikaskuntzarekin lotutako metodologia bat da.** Antzerki-metodologia eta herritartasun globalerako hezkuntzako jarduera gehienetan garatutako ezaguera intelektualak oso egokiak dira hezkuntza holistikorako bidea egiteko. Manuela Mesak (Díaz & Ostek aipatua, 2012) dioen bezala, "ezagutza-arloetako interkonexioen ikaskuntza errazten du, gizabanakoaren, komunitateen eta munduaren artean". Zapalduaren antzerkiaz orain arte irakurritako guztia aintzat hartuz, **sinergiak daude metodologia horren eta Hezkuntza Eraldatzailearen artean**, eta komeni da horiek baliatzea giza eskubideetan eta zaintzaren etikan oinarritutako herritartasun bat sustatzeko.

Lehen alderdi komun bat **gizakiei errespetu handia** izatea da, pertsona bakoitzaren gaitasun eta zailtasunak, gatazkak eta prozesu bereziak errespetatzea. Diziplina artistiko guztietan, sortzeko eta eraldatzeko espazioak diren aldetik, pertsona da ardatza. Gizakiak sentimendu eta emozioetatik bizi dituen espazio pribilegiatuak dira. Antzerki-jolasa, bereziki, sartzen da gizatasun horretan, gorpuztasuna eta emozioa den aldetik. Gorputzari nahiz emozioei dagokienez, kolore-paleta osoa gogoz hartzen da. Den-denak du garrantzia, adierazten du, ekartzen du. Pertsonaiaren gizatasunari biziki begiratzen zaio. Pertsonari berari biziki begiratzen zaio, pertsonaia eta aktore den aldetik.

Barne-begirada horren osagarri, **gaitasun enpatikoa** ezinbestekoa da, mundua ulertzen laguntzeko, *herritartasun global* deritzogun horretarantz mobilizatzeko eta bultzatzeko. Hala ere, emozioak sentitzen eta geure burua haietan ikusten dugun heinean soilik eraikiko dugu enpatizatzeko gaitasuna. Emozioen bizipen gutxi edo autoezagutza urria baditut, besteen emozioekin konektatzeko, enpatizatzeko, gaitasun txikia izango dut. Antzerkiari esker, bizi izandako egoeren eta emozioen multzoa handitu daiteke. Geure buruari eta beste pertsonei egoera horietan begiratzeko aukera ematen digu, bizi izandako emozio eta kognizioei buruz sakontzeko, sortutako jarrerei buruz hausnartzeko. Aukera

ematen digu esperimentatzeko, gu geu izateko eta beste pertsona batzuk izateko.

Hortik sortzen da bizikidetza baketsua, gizatasuna errespetatzetik eta enpatia garatzetik abiatuz, dimentsio kolektiboago baten garapena bilatuz eta pertsona bakoitzaren gizarte-inguruneetan bizikidetza harmonikoagoa sortzen lagunduz: bai hurbilenetan (familia, ikastetxea, lantegia), bai urrunekoetan (nazioartekoak, globalak).

Alde horretatik, eta Zapalduaren Antzerkia bera eraldatzeko, **Emakume Zapalduen Antzerkia** sortu eta garatu da, genero-ikuspegia aintzat hartu eta zapalketez hausnartzeko eta kontziente izateko. Kontzientzia berri horri esker, gizonen eta emakumeen artean boterean oinarritutako harremanak alda daitezke, eta heteropatriarkatuan oinarritutako mundu batetik feminitateak maskulinitatearekin harreman horizontala ezartzen duen beste batera igaro daiteke. Mundu horretan, bi sexualitateak integratuko dira, maila pertsonalean nahiz sozialean, genero-identitate osoak, osasuntsuak eta orekatuak eraikitzeko.

2. Hezkuntzara bideratutako Arteterapiaren tresnak

Arteterapiaren bidez norberaren, pertsona artekoen eta gizartearen eraldaketa susta dezakegu, autoezagutza, hezkuntza emozionala eta gatazka-konponketaren hobekuntza sustatuz, pertsonen arteko harremanetan zaintzen Pedagogiaren garrantzia agerian jarriz,herritar kritikoak eta arduratsuak sustatuz eta mundu hobe baten eraikuntza bultzatuz. Azken batean, Arteterapia HGHEren metodologia berritzaile bat da.

Arteterapian, autoezagutzarako eta ahalduntzeko espazioak eta jarduerak antolatzen dira **sortze-prozesua eta arte-adierazpena** lantzeko, eta horrek aukera ematen digu **nola sentitzen, pentsatzen eta jokatzen dugun aztertzeko**. Hortaz, nork bere burua aztertzeko bide bat da, ispiluarena egingo duten beste pertsonekin batera, eta pertsona horiei errespetuz entzun eta zintzotasunez kontatuko diegu.

Bide horrek –gure errealitate pertsonalak agerian jarriz, gure talde- eta komunitate-errealitateekin erlazionatuz– lagunduko digu onartzen gure mobilizazioaren eta sormenaren baitan dagoela errealitate horiek eraldatzea. Adierazpen sortzailearen hizkuntzatik abiatuta, elkargune hirukoitz batean kokatzen gara, joan-etorriko bidaia batean: banakakoa, taldekoa eta komunitarioa (eta alderantziz).

Zer dira hezkuntzara bideratutako Arteterapiaren tresnak?

Hasteko, esango dugu Arteterapia EZ dela teknika artistikoak ikastea (pintura, modelatua, dantza...), ez dela beharrezkoa arteari edo eskulanei buruzko aurretiko ezagutzak izatea eta helburua ez dela atsegin hartzea, nahiz eta dibertsioa eta gozamena izan daitezkeen. Jarraitzeko, esango dugu Arteterapia BAI badela psikologiaren eta psikopedagogiaren alorreko diziplina bat, kasu honetan sortzea eta hizkuntza artistikoa erabiltzen dituena helburu terapeutiko eta motibatzailekin. Eta EZ, ez dugu terapia egiten, baizik eta Arteterapiaren tresna batzuk baliatu gure lan-eremurako: hezkuntzarako.

Testuinguru horretan, pertsonak honako hauek egin ditzake: bere emozioak esploratu, bere gorputzaren kontzientzia izan, bere buruaren eta bere errealitatearen kontzientzia sustatu, erabakiak hartu, arazoak eta gatazkak konpondu, trebetasun sozialak eta komunikatiboak garatu, autoestimua handitu, antsietatea murriztu eta gaixotasunak tratatu.

Esplorazio horiek aukera ematen dute kontzientzia hartzeko, nork bere burua aurkitzeko eta askatzeko, sendatzeko, bizitzaren agintea hartzeko, norberaren, familiaren eta gizartearen baldintzapenez hausnartzeko, eta horiek eraldatzeko estrategiak bilatzeko. **Aukera ematen dute ustez behar eta nahi den mundu pertsonal egokituagoa eraikitzeko**, agian zoriontsuagoa. Eta mundu pertsonal horri esker, gainerako pertsonekin harremanak izan daitezke, errespetuan, justizian, gaitasun kritikoan eta gizartearen aldeko balioetan oinarrituta, horren guztiaren ondorioz mundu hobe bat sortzen inplikatuz. Hau da, elkarri lotutako ni-gu eta gu-mundua ardatzetatik lan egitea.

Arteterapeuta, bere ezagutza eta trebetasun profesionalen bidez, prozesu hori bideratzeaz arduratzen den figura da, pertsona testuinguru seguru eta fidagarrian senti dadin. Metodologia honen tresnak hezkuntza-alorrean erabiltzen ditugunean, ezinbestekoa da arteterapeuta batek parte hartzea, gutxienez, saioen prestaketan eta jarraipenean. Saio horietako bakoitzean, denbora batez espazio bat prestatzen da sortzeko, berritzeko, probatzeko, deuseztatzeko, eraikitzeko eta dekonstruitzeko. Sortutako objektua, hortaz, eztabaida-, azterketa- eta hausnarketa-gunea da. Lan horiek ez dute zertan politak izan, lan horiek guk nahi duguna izango dira.

Saio batean sortzen den **segurtasun-espazioan**, pertsonak hainbat material erabil ditzake sortzeko eta bere lanean bere burua islatuta ikusteko. Saio

bakoitzean aldatu egin daitezke, saioaren helburuen arabera, materialak, lan egingo duten pertsonak, aukerak eta saioa bideratzen duen pertsona.

Gorputzarekin ere lan egitea proposatzen dugu, mugimenduaren, musikaren, antzerki-ariketen eta talde-dinamiken bidez. Eta ahaztu gabe arnasketa, erlaxazioak, bisualizazioak, erritualak eta ipuinak, gure alde inkontziente eta sinbolikoarenarekin batzen laguntzen baitigute.

Gure iritziz, prozesu sortzaile-emozionalak pertsonen prestakuntza integralean laguntzen du, eta beste hezkuntza-eredu bat da. Errealitatea eraldatzeko dugun ikuspegiaz eta herritarrek horretan duten erantzukizunaz baliatuta, **Arteterapiak ikuspegi komunitarioa dakar, generoa eta zaintzaren etika aintzat hartuz, herritarrak mobilizatzeko eta gizartea eraldatzeko**. Ikuspegi eta helburu horiek indibiduala gainditzera bultzatzen gaituzte kolektibora joateko, eta gaitasunak sortu nahi dituzte, gizartearen errealitatea beste ikuspegi batzuetatik esploratzeko, alternatibak sortuz eta gizartea eraldatuz.

Arteterapia-saioak bideratzen ditugunean, batez ere espazio bat ematen dugu, pertsonak bere burua eta taldea aurki ditzan, bere emozio, sinesmen, eredu, jarrera eta baldintzapenez jabetu dadin. **Gu geu izateko eta izatera jolasteko espazio bat**, sentitu ahal izateko, esperimentatzeko eta sortzeko, gizartearen errealitatea ikusgai jartzeko espazio bat eta *Ongi Bizitzea* erraztuko diguten alternatibak sortzeko. Eta hori guztia indibidualtasunetik atera eta beste pertsona batzuen lekuko izateko, taldearen beraren lekuko, sortutako ekarpen bakoitzaz elikatzen eta hazten den taldearena. Pertsona horiek taldean hazi eta ahalduntzen dira, eta taldea hazi egiten da mobilizaziora eta gizartea eraldatzera bideratutako gogoeta eta ekintzen bitartez.

Beraz, Arteterapiak norberaren aldaketa lortzen laguntzeaz gain, gizartearen aldaketa lortzen ere lagundu dezake, generoaren ikuspegitik eta zaintzaren etikatik. Mª Dolores López Martínezek (Sánchezek aipatua, 2014) esaten duen bezala, Arteterapia "gai erakargarria eta deigarria da, artea eta terapia elkartu, eta ikerketa-gai asko eskaintzen baititu; izan ere, diziplina berria izanik ahalmen izugarria du".

Hezkuntzara bideratutako Arteterapiaren zertzelada metodologikoak

Hezkuntzaren testuinguruan, arteterapia-tailer batek lan-esparru batean oinarritu behar du, "**agertokia**" edo setting deritzona. Hau da, ezaugarri hauek dituen espazio fisiko bat: pertsonei aukera emango die seguru eta babestuta

sentitzeko; denbora-espazio argia eta mugatua; arau argiak eta adostuak, eta pertsonari errespetua, konfidentzialtasuna, entzutea eta askatasuna sentiarazten dizkioten aginduak; eskuratu eta erabil daitezkeen materialak; denbora- eta jarduera-egitura zehaztua; eta arte-ekoizpena zaintzea eta aintzat hartzea, bai prozesuan, bai emaitzan.

Saioetarako **espazio fisiko eta sinbolikoa** funtsezkoa da. Oso garrantzitsua da espazio zabal eta ondo argiztatuak izatea, segurtasuna eta konfiantza ematen dituzten leku bereiziak izatea. **Denbora-espazioari** dagokionez, saio-motaren eta lan egingo dugun pertsonen arabera, saioen iraupena ordu bat, ordu bat eta erdi, bi ordu edo hiru ordukoa izan daiteke. Baina, ordutegia kolektibo bakoitzaren errealitatera egokitu behar da ezinbestean.

Halaber, nabarmendu behar da materialak garrantzitsuak direla eta ikusgai egon behar dutela, pertsonek, eskura izan, eta lan egiteko gustukoenak aukeratu ditzaten, une horretan behar dutenaren arabera. Sortzeko erabil daitezkeen materialak errealitate eta sormen bakoitza bezain askotarikoak izan daitezke. Komeni da kontuan hartzea lehenengo saioan material asko eskura jarriz gero, pertsonak estutu egin daitezkeela, ez baitaude sortze artistikoarekin eta materialen erabilerarekin ohituta, aukera asko baitira... Material koipetsu edo lohitsuekin ere (tenperak, buztina...) gerta daiteke hori, eta pertsona batzuek lehenengo saioan baztertu egin ditzakete.

Halaber, ez da ahaztu behar ez garela etorri ondo marraztera edo arteari buruz ikastera. **Egiten den guztia egokia izango da**, saioa ez baita eskulan-eskola bat edo arte-eskola bat. Blokeatzea ere zilegi da, zer egin ez jakitea, hori gertatuz gero. Jabetzen naiz nire sortze-lanak ez duela zertan polita izan. **Nire lanak niretzat zer esanahi duen da garrantzitsuena**. Inork ez du inoren lana interpretatuko. Nire lana nirea da, eta saioa amaitzean nahi dudana egingo dut harekin.

Hori guztia arteterapeutak erreferentziatzat hartu dituen planteamendu eta egitura baten arabera egiten da, saioaren hasieratik bukaerara arte. Ondoren, Arteterapiako saio bat eratzen duten sei urrats azalduko ditugu:

1. **Ongietorria eta bateratze-lana.** Taldea eta pertsona bakoitza gaur nola dagoen jakiteko; beti zirkuluan, pertsona guztiek elkar ikusteko eta maila berdinean eserita egoteko. Pertsonak agurtuko ditugu, eta geure burua aurkeztu eta saio honetan zer egingo dugun azalduko dugu. Saioak zenbat

zati izango dituen zehaztu dezakegu, parte-hartzaileei segurtasun-sentsazioa emateko.

2. **Gure tenplua edo aldarea eraikitzeko errituala**. InteReden ekarpen berezi bat da, taldea saioan sar dadin laguntzen diguna, hemen eta orain kokatzeko, pertsona bakoitzarentzat sakratu eta garrantzitsua den horrekin konektatzeko, gure bizitza beste pertsona batzuekin loturik dagoela gogoratzeko, iraganeko, oraingo eta etorkizuneko pertsonekin, naturarekin eta, nahi izanez gero, transpertsonala den horrekin ere bai. Eta gainera, erritualak balio digu parte-hartzaileei eskertzeko saiora joateko izan duten prestasuna eta ausardia, denbora hartu baitute bere burua ezagutzeko eta taldean partekatzeko eta ikasteko.

3. **Gorputz-mugimendua eta/edo gidatutako erlaxazioa eta bisualizazioa.** Gorputz-espresioa gorputzaren hizkuntza da, eta komunikatzeko modurik oinarrizkoena. Desblokeatzen, aktibatzen, desinhibitzen, gorputzaren kontzientzia izaten eta, batez ere, jolasarekin gozatzen laguntzen du. Gorputzaren lanarekin kontzentrazio-giro egokia sortzen da, pertsona guztiak puntu beretik lanean hasteko.

4. **Proposamen artistikoak**. Une honetan, pertsonei sortzearen unea dela esaten zaie, eta argitzen da ea banaka, bikoteka edo taldeka egingo den. Sortzea proposatzeko, galdera bat edo iradokizun bat egin daiteke, edo pertsonei nahi dutena egiten utzi, gidatutako erlaxazio edo bisualizazioan edo gorputz-mugimenduan sentitu duten horretan oinarrituta. Lanak zenbat denbora iraungo duen ere zehaztuko da; fase honek 20-30 minutuko iraupena izango du, baina denbora gehiago ere eman daiteke. Zati hori garatzen den bitartean, oso garrantzitsua da taldeari laguntzea, bertan egotea, behar duten pertsonei kasu egitea, pertsona bakoitzak garatzen dituen prozesuei erreparatzea, ohartzea zein blokeatzen den, zein jartzen den taldean, zeinek erabakitzen duen bakarrik egotea... Jarrera horrek aukera ematen du nork bere berezitasunak agertzeko, era askotako erantzunak emateko, subjektuen berezitasunak sortzeko eta aniztasuna taldean azaltzeko.

5. **Bateratze-lana eta sortze-prozesuaren ebaluazioa.** Behin lanak bukatuta, taldean une bat hartzen da, sortzean bizi izandakoa partekatzeko eta pertsona bakoitzaren lan-prozesua, lanaren prozesua, jarri dioten izenburua eta abar komentatzeko. Garrantzitsua da hori zirkuluan egitea, txandaka

hitz eginez. Afektuak, entzuteak eta errespetuak saioaren zati honi eusten diote, azaltzen diren emozio guztiak onartuz.

6. **Saioaren amaiera.** Zati honetan, oso garrantzitsua da saioaren laburpen txiki bat egitea, egin diren gogoetak edo gertaera adierazgarriak aipatuz. Baina gorputzaren eta emozioen alorra ixtea ere garrantzitsua da. Horretarako, dinamikaren bat egin daiteke, pertsona bakoitza une horretan nola dagoen aintzat hartzeko. Oso une garrantzitsua da tenplura edo aldarera itzultzeko –halakorik sortu bada–, eta bizi izandakoa eskertuz saioa amaitzeko.

Arteterapiaren tresnak eta Hezkuntza Eraldatzailea

Hezkuntza Eraldatzailea garatzeko tresna gisa Arteterapia erabiltzen denean, zenbait aplikazio-eremu ditu. Berriena eta guri gehien dagokiguna **maila mikropertsonala eta makrosoziala harremanetan jartzea da, artearen eta sormenaren bidezko mobilizaziotik abiatuta**. Lehendabizi, mobilizazio pertsonal bat, gure motibazio eta sentimenduen erroetan sakontzen duena, eta benetan garen horrekin konektatzea bilatzen duena, beste pertsona batzuekin harreman osasungarria izateko eta, era berean, bizi garen mundua eraldatzeko, bizitza bidezkoagoa, iraunkorragoa eta zoriontsuagoa izate aldera.

Hortaz, Arteterapia eraldatzeko helburuz erabiltzen dugunean, honako hauek ikasteko esperientzia bihurtzen da: kontu pertsonaletatik politikoetara igarotzea eta pertsonatik abiatuta errealitatea eraldatzea. Horretarako, herritar heldu eta arduratsuak eraiki behar dira, beren burua eta munduko gainerako pertsonak errespetatzen dituztenak. Nork bere burua eraldatzeko prozesu hori oso nabaria da Arteterapia metodologiatzat hartzen duten prozesu-ekintzetan. Era berean, nork bere burua eraldatzeko prozesu horrek errealitatea eraldatzeko aukera ematen du, zaintzen etikan oinarritutako herritartasun globalera bideratuta.

Abiapuntua pertsona bakoitzak bere burua eraldatzeko duen oinarrizko gogoa denez, lehen emaitza, jakina, alor horretan izaten da. Pertsona taldera irekitzen da, sakontasun-maila handiak partekatzen ditu eta adierazpena sustatzen duten tresnak eskuratzen ditu. Nork bere burua aurkitzeko prozesua da, eta taldeak ispiluarena egiten du, entzuteko eta zaintzeko jarrera baten bidez.

Hezkuntza Eraldatzailearen tresna gisa Arteterapiak bideratzen duen urrats horrek –banakotik taldera egindako urratsa– garbi erakusten du **nire jarduerek ondorioak dituztela eta pertsona guztiak elkarrekin erlazionatuta gaudela**.

Horretarako, ezinbestekoa da gure barneko mapa eraldatzen jarraitzea, elkarrekin etengabe ditugun erlazioetan izandako sentimendu eta emozioak kudeatzen ikasten jarraitzea, neure burua eta gainerako pertsonak zainduz eta errespetatuz. **Azken batean, zaintzen etikan oinarritutako jarrera bat da**, autozainketa-modu indibidual eta kolektibo iraunkorragoak eta solidarioagoak sortuz. Beste era batera esanda, norberaren eskubideak beste pertsona batzuen premiekin batzea izango litzateke, nigan hasten den autozainketa bat sortzeko, baina pixkanaka inguruko pertsonei ireki eta gizaki guztiengana zabaltzen dena, baita gizaki ez direnengana ere, gizartean parte hartzearen bidez.

Metodologia Esperientzialak

Zenbait esaldik eta adierazpenek gogorarazten digute garrantzitsua dela ikaskuntza esperientziarekin lotzea. Lehenengoa hauxe da: "zer ikasi hura egin, zer egin hura ikasi". Beste bat, Konfuziorena ustez (beraz, ziur asko ez zuen hark esango): "entzuten dena ahaztu egiten da, ikusten dena gogoratu egiten da eta egiten dena ikasi egiten da". Ildo horretatik, eta Daleren konoa deritzonean oinarrituta (Edgar Dale pedagogoak benetan proposatutakoagatik oso urrun dagoen piramide bat), honako hau adierazten da: "Irakurtzen dugunaren % 10 ikasten dugu, entzuten dugunaren % 20, ikusten dugunaren % 30, ikusten eta entzuten dugunaren % 50, esaten dugunaren % 70 eta esaten eta egiten dugunaren % 90".

Adierazpen horiek guztiek, eta ildo bereko beste askok, egia sakon bat gordetzen dute, denboraren poderioz gaiztotu egin dena. Hau da, errealitatearen ikaskuntza teorikoa oso mugatua eta eskasa da gizartean ondo moldatzeko. Hala ere, adierazpen horiei garrantzi gehiegi emanez gero, ikaskuntzarako ezinbestekoak diren jarduerak baliogabetzeko arriskua dago, hala nola irakurtzea, arretaz eta kontzienteki entzutea, arretaz eta xeheki behatzea, kontenplatzea, ulertzea, etab.

Pedagogia Esperientzialak ondo ulertzeko, aintzat hartu behar dira, bai termino hori lehen aldiz erabili zuen John Dewey, bai gaur egungo Pedagogia Aktiboak, hezkuntza-sistemaren hezkuntza formaleko mugan daudenak. Pedagogia Esperientzialek berekin dakarte gizartearen errealitatea eraldatzeko proposamen sozioedukatibo bat, hezkuntza aldatzea proposatuz.

Beraz, ez dute ekintza lehenesten eta gogoeta ezabatzen, baizik eta pertsonaren esparru kognitibo, emozional eta korporalak integratzen. Hau da,

kontzienteki ikastea, ahalik eta esperientzia holistikoenen bizipenak integratuz. Integraltasun hori aldi berekoa izan daiteke –esperientziek pertsonaren zenbait esparru barne hartzen dituzte–, edo sekuentziala –esparru bakoitzeko ekintzak elkarren segidan gertatzen dira–. Sekuentzia horren adibide argia *Kolben zikloa* da, lau fase dituena: esperientzia multisentsorial bat, gogoeta-eta behaketa-fasea, kontzeptualizazio-fasea, eta esperimentazioa eta beste testuinguru batzuetara eramatea. Beste adibide bat Ikerketa eta Ekintza Parte-hartzailea da.

InteReden uste dugu esperientzia guztiek ikaskuntzak dakartzatela, baina guztiek ez dutela modu humanizatzailean egiten. Aitzitik, ekoizpenera, lehiakortasunera eta aberastasunak metatzera bideratutako gizarte batean, ingurune horretan haurtzaroan eta nerabezaroan egiten diren esperientzia askok eredu hori errepikatzen irakasten dute, ingurune horretan lehiatzen, irabazleen klub esklusiboan sartzeko eta galtzaileen talde handian ez erortzeko.

Gainera, curriculumeko ikaskuntzak eskuratzeko beharraz kontziente garenez, irakatsi eta ikasteko prozesu esperientzialak diseinatzearen eta laguntzeren aldekoak gara, errealitatea modu kritikoan ulertu ahal izateko eta errealitatea justizian eta askatasunean oinarrituta eraldatu ahal izateko zenbait oinarrizko konpetentzia eskuratzeko.

Era askotara egin daiteke hori, baina bi metodologia sendo nabarmenduko ditugu, aukera ematen baitute ikaskuntza horiek tokian tokiko ingurunea eta mundu mailakoa aintzat hartuz egiteko: Ikaskuntza-Zerbitzua eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza. Bietan ezinbestekoa da ikuspegi egokiak izatea. Gure iritziz, gutxienez hauek izango dira: generoa, kulturartekotasuna, iraunkortasuna eta herritartasun globala. Gainera, eraldaketa-modu hauetara bideratuta egon behar dute: eraldaketa pertsonala, jardueretan parte hartzen duen hori pertsona hobea bihur dadin (askeagoa, batez ere); eraldaketa kolektiboa, parte hartzen duen taldea elkartuago egon dadin, eta gizarte-ingurunea aztertzeko eta eraldatzeko gaitasun handiagoa izan dezan; gizartearen eraldaketa, oraingo eta etorkizuneko jarduerak justizia sozialera eta genero-ekitatera bideratu daitezen.

Hortaz, bi metodologia horiek proposatzen ditugu, dagozkien gehigarriak eta guzti. Bata eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua da. Ez da behar bat betetzeko laguntza-zerbitzu bat, baizik eta zerbitzu eraldatzaile eta askatzaile bat, baztertuta geratzen ari den kolektibo batentzako eskubide bat

betetzea bilatzen duena, eskubide hori betetzeko erantzukizuna duenari bere betebeharra betetzeko eskatuz. Bestea ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza da, proiektua ingurunean hobekuntzaren bat sortzen ari dela eta kontzientzia kritikoz egiten duela bermatzeko, tokiko esparruan arazoak eta injustiziak erlazionatuz, eta mundu mailan gertatzen ari denarekin lotuz. Adibidez, urari buruzko ohiko proiektuaren ondorioz, aldaketaren bat proposatzea baliabidearen erabileran eta eskualde horretako uraren kudeaketan, salatzea uraren merkaturatzearen atzean ezkutatzen diren interes kapitalistak, bermatzea munduko pertsona eta herrialde guztiek ura izango dutela, etab.

1. Eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua

InteReden, **eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua (ApS**) bultzatzen dugu, **bide egokia baita prozesu pertsonalak eta taldekoak gai sozial eta politiko bihurtzeko**. Horrela, eskubideak landu beharreko eduki zehatzak izan beharrean, bizkarrezur bihurtzen dira. Aurrerago ApS eta Hezkuntza Eraldatzaileari buruz ikusiko dugun atalean, ikuspegi horrek metodologia horri egiten dion ekarpena zehaztuko dugu, ikuspegi beharrezkoa baita tokiko jarduera eraldatzaileak sortzeko, esparru globalari erreparatuta.

Oinarrizkoenetik hasita saiatuko gara **ApS definitzen**; izan ere, bi elementu ezagunen binomioa da (ikaskuntza eta zerbitzu solidario eta eraldatzailea), eta batzean errealitate berri bat sortzen dute, haietako bakoitzaren ondorioak areagotzen dituena.

Ikaskuntzak zerbitzua hobetzen du, ekintza-gogoeta-ekintza parte-hartzaileko prozesuetan sartzen duelako; izan ere, zerbitzuko eta gizarte-eraldaketako testuinguru batean ikasten dena transferitu egin daiteke, ezagutza ekintza berri bihurtuz eta sareak eraikitzen sozializatuz. Horrela, ikaskuntzari esker, kalitatezko zerbitzua eman dakioke komunitateari.

Zerbitzuak ikaskuntza hobetzen du, motibatu eta zentzua ematen dio, esperientzia dakarkio, pertsonaren esparru emozionala eta aktiboa integratuz, eta ikaskuntza berriak lortzeko aukera emanez. ApSn, beraz, batu egiten dira asmo pedagogikoa eta gizartea eraldatzeko asmoa.

Zer da eskubideen ikuspegia duen Ikaskuntza-Zerbitzua?


Honela definitzen dugu Ikaskuntza-Zerbitzua: **Ikaskuntza-Zerbitzua hezkuntzako proposamen bat da, ikaskuntzako eta komunitaterako zerbitzuak ondo antolatutako proiektu bakarrean elkartzen dituena, non parte-hartzaileek ikasteaz bat inguruneko premia errealetan lan egiten duten, ingurunea hobe-tzeko asmoz**. Definizio horren oinarrian, proposamena kokatzen duten zenbait **printzipio pedagogiko** daude: lehendabizi, esplorazioan, ekintzan eta gogoetan oinarritutako ikaskuntzaren ikusmolde batetik abiatzen da, ezagutzaren aplikagarritasuna nabarmentzeko; gainera, uste du **balioetan hezteak** berekin dakarrela egoera problematikoetatik abiatuta erronka horiei zuzeneko esperientziak baliatuz aurre egitea, adimen moralak ematen dizkigun tresnen bidez eta kultura moralaren laguntzaz; azkenik, herritartasunerako hezkuntzaren oinarrian, parte-hartze aktibo, arduratsu, kooperatibo eta solidarioak egon behar du, gizartea hobetzea helburu duena.

Alde horretatik, esan dezakegu eskubideen ikuspegia duen ApSa gizartean erabil daitekeen hezkuntza-proiektu bat dela, komunitatearen premia errealak detektatu eta haiei heltzen dielako. Ikuspegi horrek halabeharrez jarduteko eskatzen die garapena bideratu edo indartu dezaketen pertsonei eta sistemei. **Ez da borondate- edo zintzotasun-kontua, baizik eta justizia- eta erantzukizun-kontua**. Zenbait eskubide gauzatzen lagundu behar dutenen neurri, estrategia eta betebeharrei erreparatzeaz gain, adierazten du zeinek eman behar dituen kontuak garapen-gaietan dauden hutsuneengatik.

Era berean, **hezkuntzaren esparrua gainditzen duen** metodologia bat da, elkarrekikotasun-eremu batean ikasteko eta laguntzeko zerbitzu bat baita: inplikatutako alderdi guztiek zerbait baliagarria jasotzen dute, zerbitzua ematen duenak nahiz jasotzen duenak. Horretarako, sarean lan egin behar da, errealitatearen gainean esku hartzen duten hezkuntza-erakundeak eta gizarte-erakundeak koordinatzeko.

ApSra hurbiltzen jarraitzeko asmoz eta eskubideen ikuspegia geroko utziz, ondoren konparazio-grafiko bat ageri da, esperientziaren pedagogian eta parte-hartze komunitarioan oinarritutako beste jarduera batzuk kontuan hartuz. Jarraian dagoen grafikoan, zenbait proposamen ageri dira, non zerbitzua eta ikaskuntza ApSn ez bezala konbinatzen diren.

Grafikoak lantzen ari garen bi aldaerak erlazionatzen ditu: ikaskuntzak (x ardatza) eta zerbitzua (y ardatza). Horretan oinarrituta, errealitateari heltzeko lau estrategia eskaintzen ditu, horietako bakoitzean sortzen den ikaskuntzaren eta zerbitzuaren arabera:



- Hasteko, esango dugu **ApSa eta borondatezko lana ez direla berdinak**; izan ere, bigarrena komunitateari egiten zaion zerbitzu bat da, baina ez du nahitaez ikaskuntza esplizitu eta sistematizaturik eskatzen. Dena dela, borondatezko lanetan praktika sendoa izatea abiapuntu egokia izan daiteke ApS proiektuetarako.
- **Ez dira berdinak ApSa eta eremu-ikerketa bat**, ikaskuntza-proiektu bat, practicum bat edo curriculum-eduki zehatzen ikaskuntzan oinarritutako beste jarduera batzuk, komunitateari zerbitzu txikia egiten diotenak. Dena dela, praktika horiek ere abiapuntu egokia izan daitezke ApS proiektuetarako.
- **ApSa** eta intentsitate txikiko kanpaina solidarioak edo **noizbehinkako ekimenak erabat desberdinak dira**; izan ere, ekimen horietako zerbitzuaren ondorio eraldatzailea eta kalitatea ez dira oso garrantzitsuak izaten, eta ikaskuntzak ia ez daude sistematizatuta.
- Azkenik, esan dezakegu **ApSn zerbitzua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ikaskuntza gehiago** izaten dela. Horrek bere burua berrelikatzen duen interrelazio bat sortzen du prozesuaren hasieratik amaierara. Horren adibide bat izan daiteke jolas erraldoiak egitea, gero auzoko jaietan erabiltzeko. Ikaskuntza tekniko edo kurrikular bat nahiz bizitzarako trebetasunei buruzko bat egiten da, eta, aldi berean, jarduera bat egiten da (zerbitzu bat

ematen da) komunitatearentzat. Horrek norberaren ikaskuntza sendotzen du, hobetu beharreko alderdiei erreparatzen baitzaie zerbitzua berriro egiten denerako.

Eskubideen ikuspegia duen ApSren zertzelada metodologikoak

ApSren ezaugarriek aukera asko ematen dituzte proiektuak hezkuntza formaleko nahiz ez-formaleko espazioetan diseinatzeko. Proiektu horiek bost alderdi komun edo oinarrizko baldintza partekatzen dituzte, ApS proiektuak inplementatzeko: ikaskuntza, zerbitzua, proiektua bera, parte-hartzea eta hausnarketa.

Ikaskuntzak sistematizatua izan behar du, eman nahi den zerbitzuari lotua, eta esplizitatu behar du protagonistek zer ikasiko duten hura egin aurretik, egiten denean eta egin ondoren. Ikaskuntzek errealitatea ulertzen laguntzen dute, beharrak diagnostikatzen, kalitatezko zerbitzu bat egiten, jarduera bera berrikusten eta etorkizunean hobetzen. Hezkuntza-sisteman, ahal den neurrian, interesgarria da ApS proiektuak eta ikaskuntza kurrikularrak uztartzea.

Zerbitzuak benetakoa izan behar du, eta ingurune hurbil edo globalaren premia errealei erantzun behar die, eraldatzeko helburuarekin. ApS proiektuak printzipio hauetan inspiratzen dira: alteritatea, elkartasuna, justizia, ekitatea, elkarrekikotasuna, etab. Hortaz, ApS zerbitzuak laguntza-jarduerak saihesten ditu, eta eragin hezigarria eta eraldatzailea du protagonisten artean eta gauzatzen den ingurunean.

Asmo pedagogiko garbia behar da, hezitzaileak planifikatutako eta ebaluatutako hezkuntza-**proiektu** bat. ApSn, zerbitzuak kalitatezkoa izan behar du, eta aukera eman behar du jardueretatik eta haien ondoriozko bizipenetatik dimentsio pedagogikoa ateratzeko. Hori da, hain zuzen ere, ApS proiektuetako hezkuntza-eginkizun nagusietako bat.

ApS esperientziek parte-hartze aktiboan oinarritu behar dute, informatzea beste helbururik ez duten proposamenak gaindituz. Oinarri horretan eraikitzen dira ikaskuntzak, eta horri esker bihurtzen dira benetan esanguratsu. Protagonismo horren intentsitatea, jakina, parte-hartzaileen adinera, heldutasunera eta gaitasunetara egokitu behar da.

ApSn ezinbestean hausnartu behar da jarraitutako prozesuaz, egindako ikaskuntzez eta zerbitzuaren eraginaz. Hausnarketa horri esker, ikaskuntza berriak integratu eta egokitu daitezke, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, eta, era

berean, jarrera paternalistak gainditzen laguntzen du, protagonistak ohartzen direnean zenbat ikasten duten egiten duten zerbitzuarekin.

Eskubideen ikuspegia sartzeak berekin dakar garapenaren laguntza- eta karitate-ikuspuntuak alde batera uztea. Izan ere, zalantzan jartzen du, zorrotz, talde edo gizarte batzuei mesede egiten dieten eredu sozioekonomikoak, banakoen, gizarteen eta herri osoen eskubideak urratzen dituztenak. ApS proiektu bat bost fasetan gauzatzen da:

1. **Errealitatearen analisi kritikoa.** ApS proiektu baten proposamenaren aurretik, testuingurua aztertu, eta hobetu daitezkeen egoerak identifikatzen dira, esku hartzen duten pertsonak edo talde osoa gogoan izanda. Taldekide bakoitzaren eta talde osoaren indarguneak aztertzen dira, egin daitezkeen proposamenetan norberak eta taldeak garatzeko zer aukera dauden zehazteko. Era berean, errealitateari eta taldetik ateratzen diren jarduerei buruzko azterketa hori egokitu egin behar da jarduera horiek gauzatzeko dauden benetako aukeretara, eta pertsonei eta taldeari prozesu horretan lagundu behar zaie.

2. **Proiektuaren planifikazioa.** Egingo den proiektua aukeratzean, garrantzitsua izango da gure indarguneak eta ahulguneak zein diren jakitea (autoezagutza), taldearen ahalbideen araberako jarduera zehatzak gauzatzeko, frustrazioaren arrazoi bihur ez daitezen. Berriz ere, erreferentziazko figurak oso garrantzitsuak dira, alde onak eta txarrak balioesten lagunduko baitigute, baita esperientzia egokiena hautatzeko (erabakiak hartzea) ditugun aukerak ondo bereizten ere (pentsamendu kritikoa).

3. **Proiektu eraldatzailea gauzatzea.** Talde-prozesu guztietan ohikoa da desadostasunak eta gertaera bera ulertzeko modu desberdinak sortzea. Krisiune horiek aukera ezin hobeak izan daitezke asertibitatea lantzeko, emozio eta sentimenduei erreparatzeko eta arazo eta gatazkei irtenbideak emateko. Esperientzia horiek taldea gainditzen dute, eta beste esperientzia eta baliabide batzuen aurrean jarriko dute; horretarako, ezinbestekoa da pertsonen arteko harremanak garatzea.

4. **Ebaluazioa.** Fase honetan, taldeak egindako jarduera ebaluatzeaz gain, taldean ikasitako trebetasunak berrikusiko ditu bideratzaileak. Ebaluazioa beste aukera bat izan daiteke, zenbait trebetasun psikosozial lantzeko,

gatazka-une hura nola konpondu zen berreskuratuz edo lortutako helburuen analisi kritikoa bultzatuz.

5. **Amaierako jaia.** Ospakizunen helburua eskuratutakoa finkatzea eta jarraitzeko gogoa piztea da

Eskubideen ikuspuntua duen Ikaskuntza-Zerbitzua eta Hezkuntza Eraldatzailea

ApSri esker zenbait tresna berreskura daitezke, hala nola Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta ondoren garatu diren printzipioak, balioak, arauak eta nazioarteko estandarrak. Horiek guztiek gure helburu eta jarduerak bideratzen lagunduko digute, zer xede lortu eta zer aldaketa eskatu behar ditugun argitzeko, batez ere erantzukizun politikoa eraikitzera zuzendutakoak. Hori guztia balioen eta eguneroko jarreren testuingurua baztertu gabe, edo juridikoki oraindik onartu ez diren eskubideak aldarrikatzeari utzi gabe.

Eskubideen ikuspegia ApS-n sartzearen ondorioak **berehalakoak eta sakonak dira**. Aintzat hartzen dituzte zerbitzua egiten duten subjektuak, zerbitzua jasotzen duten subjektuak eta zerbitzuaren hartzaileei urratzen zaizkien eskubideekin loturiko eginbeharren titularrak diren administrazioak, erakundeak eta agenteak, Estatuko kide izan nahiz ez izan. Bi kolektibo horiei dagokienez –zerbitzua ematen dutenak eta jasotzen dutenak–, gaitasunak indartzea da ardatza (konpetentziak, hezkuntzako hizkeran), giza eskubideak urratzearen kausa nagusia eginbeharren titularrek beren erantzukizunak eta betebeharrak betetzeko duten gaitasun falta da, bai eta eskubideen titularrek haiek eskatzeko duten gaitasun falta ere. Hori dela eta, jardueren helburuak subjektu guztien gaitasunak indartzea izan behar du. Gizarte mailan, helburu horri *herritartasuna eraikitzea eta erantzukizun politikoa eraikitzea* esan zaio. **Gaitasuna izango dugu, baldin eta egoera jakin bati modu eraginkorrean aurre egiteko behar diren ezagutzak, prozedurak eta jarrerak modu integratuan mobilizatzeko gai bagara**.

Familian eta komunitatean bizitzeaz gain, haurrek denbora asko ematen dute ikastetxeetan, eta, hor, ApS Hezkuntza Eraldatzailearen tresna baliagarria da. Gizarte postindustrialeko hezkuntza-sistemen arazo komun bat da ikasleek ezagutza-kantitate handia pilatzen dutela, baina zailtasun handiak dituztela egoera jakin batzuetan erabiltzeko. Ikuspegi berri horretan, ikaskuntza-adierazlea ez da ikasleek zenbat diziplina-eduki pilatzen dituzten, baizik eta ikasleek

zer gaitasun duten horiek mobilizatzeko, eta zereginei zenbait testuingurutan irtenbideak emateko (hezkuntza, familia, lana, gizartea eta norbera). Egia da *egiten jakiteko* jakin egin behar dela, baina jakite hori ez da nahikoa ikaskuntza-adierazle gisa, eta horren balioa oso lotuta dago zenbait testuingurutan erabiltzeko gaitasunarekin.

Hortaz, irakaskuntza-estilo eta ikaskuntza-metodo berriak behar dira, premia berriei erantzuteko, eta, hortik abiatuta, ikastera motibatzeko. Alde horretatik, ApS funtsezko ekarpena da, errotiko aldaketak eragiten baititu hezkuntzaren tresna, rol, espazio, mekanismo eta, azken batean, paradigmetan.

2. Ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza

Argitalpen honetan aurkeztutako gainerako metodologietan bezala, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren (POI) estrategietan garatutako dokumentazio asko eta esperientzia ugari daude. Hezkuntza-estrategia hori hezkuntza akademikoaren testuinguruan sistematizatu da bereziki, nahiz eta beste hezkuntza-testuinguru batzuetan ere tresna baliagarria izan.

Lehendabizi aipatuko dugu **ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntzaren abiapuntua errealitatea modu kritikoan ulertzea dela**, zalantzan jarriz kapitalismoan, patriarkatuan eta natura eta pertsonak –batik bat emakumeak– esplotatzean oinarritutako gaur egungo garapen-eredua. POIren ikuspegi horri esker, proiektu jakin batzuk egin daitezke, bizi garen sistema oinarritzen eta errepikatzen duen errealitatea eraldatzeko eta, haren ordez, ikuspegi globala duen zaintzaren etikan oinarritutako ekintza errespetutsuak sortzeko gai den alternatiba bat sortzeko. Abiapuntua haurren eta nerabeen interesak dira; hau da, errealitatea modu kritikoan ikusiko dute eta gai izango dira beren jarduerek toki mailan nahiz mundu mailan dituzten ondorioen ardura hartzeko, eta, ondoren, proiektu bat sortu, eta egoera hori alda dezakeen proposamen eraldatzaile bat zehaztuko Zer da ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza?

Zer da ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza?

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) aplikazio praktikoa duen arazo bati irtenbidea ematean datza, proiektua jarduerara bideratuta dagoela. Pertsonen interesetatik abiatzen da eta, beraz, pertsonek parte hartzen dute prozesu hori

diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen. Horrela, ikaskuntza-eredu bat garatzen da, modu aktiboan lan egiteko, mundu errealean –sortu diren lekutik harago– erabil daitezkeen proiektuak antolatuz, inplementatuz eta ebaluatuz.

Horretarako, **ikerketa-prozesu** bat egiten da, prozesuaren hasieran taldea gidatzen duen pertsonak, taldearen interesetan oinarrituta, egiten duen galdera bati erantzuteko. Saioetan, parte-hartzaileek proiektuak garatzeko autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna dute; dena dela, prozesuan laguntzen duen heldua funtsezko figura da: saiatuko da azpimarratzen garrantzitsuena ez dela azken emaitza, baizik eta ikaskuntza-prozesua eta egindako lan introspektiboa eta talde-lana.

Azken emaitza hori, lortu nahi dugun eraldatze-egoera hori, garatuko ditugun proiektuetan kontuan izango duguna, izango da proiektuaren abiapuntua. **Inguruneko gizarte-egoera bat eraldatzeaz gain, egiten ari garen proiektuak mundu mailan dituen beste jarduera eta ondorio batzuekin lotzen dugu, eta, horrela, POI proiektu bat izateaz gain, eraldaketa eta ikuspegi globala aintzat hartzen dituen proiektua ere izango da**. Hau da, aldatu nahi dugun hurbileko errealitatea bat dator urrutiago ere gertatzea nahiko genukeen aldaketekin; enpatia-ariketa bat da, gizakien arteko erlazioa ulertzeko ariketa bat, bai eta gizakien eta ingurumenaren arteko erlazioa ulertzekoa ere.

Taldeari laguntzen dion pertsonaren eginkizunarekin jarraituz, pertsona horrek jasotzen du zein den lortu beharreko helburua proiektua inplementatu ondoren, eta hortik abiatuta hasten da informazioa eta behar den ezagutza ematen, berehala aplikatuz eta sortu behar den jarduerarekin lotuz. Teoria eta praktika proiektu baten inguruan batzen dira, norberaren proiektua balitz bezala, eta indarra ematen diote elkarri.

Lortu beharreko emaitza hipotetikoa ezagutzak eta esperientzia lotzen dituen testuingurua da, sortzearen eta norberaren beharrak asetzearen plazerrean oinarrituta. Izan ere, gaiaren abiapuntua norberaren interesa da, beste pertsona batzuen interesetan integratuta, interes horiek norberarenak balira bezala. Gainera, antzeko interesak dituen talde bateko kide izatearen sentimendua ere atsegingarria da eta, era berean, eskuratutako ezagutzak gauzatzen dira, eta oinarrizko konpetentziak eta bizitzarako trebetasunak garatzen dira.

Hori guztia kontuan izanda, POIren xedea esperientzia esanguratsua izatea da, bai eta, esaten ari garen bezala, ikastetxeetan erabilgarri izatea ere, ez baitu

prestakuntza tekniko handirik behar inplementatzeko. Izan ere, beste hezkuntza-eremu batzuen aldean ikastetxeetan izaten den formaltasun handiagoko testuingurura egokitzen da, eta ikaskuntzak eta oinarrizko konpetentzien garapena lotzen ditu.

Ikuspegi globala duten proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren zertzelada metodologikoak

Proiektu baten planifikazio, diseinu, gauzatze eta aurkezpenarekin loturiko edozein jarduera, eta emango diren ikaskuntza esanguratsuak garatzen lagunduko duena, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza bat da (POI). Gainera, **proiektu horrek hurbileko egoera bat eraldatzen badu eta mundu mailako ikuspegia izateko aukera ematen badu, aipatzen ari garen ikuspegi globala du**.

Ikastetxeetan, irakasleek, proiektuaren prozesuari laguntzeaz gain, proiektuari lotutako edukiak, helburuak eta oinarrizko konpetentzia esanguratsuenak aukeratuko dituzte, eta alderantziz. Alde horretatik, proiektua hezkuntza-ibilbideari egokitzea, eta, ahal den neurrian, azken hori proiektuari egokitzea (eta, beraz, haurren eta nerabeen zuzeneko beharrei) irakasleen beharra da ere bai. Irakaslea POIren esparru teorikoaren berri dakien erreferentziazko pertsona da.

InteReden, ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntza sustatzeko, honako fase hauek zehazten ditugu, erreferentzia- eta laguntza-figura horrek balia ditzan:

1. **Testuinguruaren analisi kritikoa, beharrak eta interesak**. Gure komunitatea (ikastetxea, auzoa edo udalerria) izango dugu abiapuntu, tokian tokikoa, globalarekin lotuta dagoena eta harekin elkarrekiko mendekotasuna duena. Hortaz, egingo dugun lehenengo galdera gure testuingurua ezagutzen ote dugun da, gure ikastetxearena eta hura kokatuta dagoen lekuarena. Hemen hasten da ikasleen protagonismoa, hainbat gairi buruzko informazioa biltzeko: ekonomia, gizartea, kultura, politika, hezkuntza, ingurumena... Horretarako, informazio dokumentala bildu behar dute: tokiko egunkari/aldizkarietan kontsultatu, tokiko edo Estatuko erakundeak aztertzu, gai zehatzetan espezializatutakoak... Garrantzitsua da datu orokorrak lortzea, baina baita sexuaren, adinaren eta abarren arabera bereizita ere. Ikastetxean lehenago egindako ebaluazioak ere informazio-iturri dira,

bertan bizi diren eta globalarekin lotuta dauden problematiken eta premien berri ematen dutelako; adibidez, bulling delakoa, genero-indarkeriak, diskriminazioak, etab.

2. **Gaia aukeratzea.** Informazioa lortu ondoren, landu beharreko gaia aukeratuko da. Hezkuntza-estrategia honekin ikasteaz bat norbera eta gizartea eraldatu nahi ditugunez, aukeratutako gaiak aukera eman behar digu ikaskuntzaren dimentsio guztiei heltzeko.

3. **Proiektuaren izenburua.** Proiektuaren izenburua sortzeko, aukeratutako gaia modu positibo eta motibatzailean adierazten da, hezkuntza-komunitatearen konpromisoa sustatuz.

4. **Justifikazioa**. Aurreko faseetan egindakoa idatziz jarri behar da, ikasleen protagonismoaren bitartez burututako prozesu parte-hartzailea erakutsiz. Une horretan balioetsi behar da ea generoaren eta giza eskubideen ikuspegia txertatu den, eta pentsatu behar da zer jarduera eraldatzaile egingo den proiektuaren amaieran.

5. **Dimentsioak**. Ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntzan, proiektuak ikaskuntzaren dimentsioei heldu behar die, ikasleek herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen konpetentziak eskuratu ditzaten, hala nola ingurune fisikoaren ezaguera (gizarteko egituren artean dauden erlazioen berri jakitea), instrumentalak (komunikatzeko eta arazoak konpontzeko konpetentzia), pertsonalak (autoestimuarekin lotutakoak), sozialak (enpatia eta gizatasun partekatuaren zentzua) eta herritartasunari dagozkionak (parte-hartze kritiko, sortzaile eta eraldatzailea izateko gaitasuna).

6. **Galdera sortzaileak.** Une honetan definitu behar da zein izango diren gure proiektuko galdera sortzaileak, aukeratutako gaiari buruz ikertzen lagunduko digutenak, tokikoa eta globala batuko dituen azterketa batetik abiatuta. Gure eguneroko errealitatea eta beste leku batzuetan gertatzen dena ez daude bereizita, gure portaerak beste gizaki batzuei eragiten dien modu berean. Galdera horiek irakasleek ikasleekin batera idatziko dituzte, eta aukera eman behar dute ikaskuntzaren dimentsio guztiei heltzeko –aurreko fasean adierazi dira– eta curriculumeko jakintza-arloekin erlazionatzeko.

7. **Konpetentziak eta curriculum-edukiak identifikatzea.** Une honetan, gaia aukeratu eta galdera sortzaileak definitu ondoren, curriculum-arloetako

irakasleek landu beharreko konpetentziak eta edukiak identifikatuko dituzte. Zenbaitetan, beste galdera batzuk egin beharko ditugu, edo lehengoak aldatu.

8. **Jarduera-plana**. Orain, zer jarduera antolatu erabakiko da, curriculum-arloetatik egindako galdera sortzaileei erantzuteko, eta ikaskuntza-dimentsioak eta identifikatutako konpetentziak lortzeko. Jarduera horietan metodologia dinamikoak erabiliko dira, esperimentazioan, ikerketan, lan kooperatiboan eta abarretan oinarrituta. Halaber, jarduerak aukeratzeko, ikasleekin hitz egin, eta haien proposamenetatik abiatuko gara, gure eginkizuna zein den ahaztu gabe. Plan hau ixteko, garrantzitsua da proiektuan esku hartzen ari diren ikastaldeek (egokiena ikastetxe osoa inplikatzea da) gizartea eraldatzeko jarduera kolektibo eta mobilizatzaileak egitea. Kontua ez da lana, edo prozesuaren hasieratik orain arte lortutako emaitza, jendaurrean erakustea edo aurkeztea, baizik eta gertaera bidegabe bat –hurbileko ingurune batean hobetu daitekeena eragin globala izanik– aldatzera bideratutako jarduera bat; gainera, txikia izan arren, giza eskubideak, genero-ekitatea eta zaintzen etika errespetatuko ditu.

9. **Ebaluazioa.** Ebaluazioa alderdi guztietan egin behar da: egindako ikaskuntzak, proiektu eraldatzailearen inplementazioa, eta norberaren eta gizartearen eraldaketa. Ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntzaren garapenaren ebaluazioari dagokionez, praktikan jartzean zer elementu erraztu edo oztopatu duten baloetsi behar da, eta, batez ere, herritartasun globalerako hezkuntzarekin loturiko gaiak balioetsi, hala nola genero-berdintasuna eta genero-ekitatea, giza eskubideen ezagutza eta defentsa, kulturartekotasuna, ingurumen-iraunkortasuna, hezkuntza-komunitatearen partaidetza, eta ikastetxearen eta tokiko eta mundu mailako testuinguruaren arteko lotura. Gai horietaz gaian, hauek ere balioetsiko dira: metodologia kooperatiboen erabilera, proiektuaren inplementazioak eragindako aldaketak eta sustatu den eraldaketa pertsonala eta kolektiboa.

10. **Sistematizazioa.** Jarduerak bukatu ondoren, esperientziaren sistematizazioa lagungarria izan daiteke landu diren edukiak antolatzeko, aurreikusitako eta ezusteko ikaskuntzak identifikatzeko, eta oraindik ikasi gabe dauden curriculum-edukiak hautemateko. Sistematizazioak aukera ematen du prozesu guztia jasotzeko, multzo gisa ikusteko, eta esperientzia ikaskideekin edo

hezkuntza-komunitatearekin sozializatzeko. Bizi izandako prozesua idatziz antolatuko da, egindakoa deskribatuz eta hartaz hausnartuz. Garrantzitsua da gogora ekartzea proiektuan ibilitako funtsezko uneak, lortutako emaitza garrantzitsuenak eta egindako ikaskuntzak. Sistematizazioa errazteko, garrantzitsua da proiektuaren garapenean erregistro-fitxa errazak edukitzea. Proiektuaren sistematizazioak ikastetxea aberasten du herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailearen prozesuan, eta, gainera, bide ematen dio bere esperientzia beste ikastetxe eta erakunde batzuekin partekatzeko.

Ikuspegi globala duten proiektuetan oinarritutako ikaskuntza eta Hezkuntza Eraldatzailea

Lerro hauetaraino iritsi bazara, erraz ohartuko zinen ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntzak zer-nolako ahalmen eraldatzailea duen. Hurbileko testuinguruan gerta daitekeen eraldaketaz gain, eskala globalagoan ere eragiten du behin proiektu osoa amaituta. Baina pertsonek, taldeak eta hezkuntza-komunitateak berak ere nabaritu dezakete eraldaketa hori, ikasleak eta irakasleak harreman asimetrikoetan biltzen dituen prozesu horretan. Gainera, prozesu guztian ikuspegi hauek ere ageri dira: giza eskubideak, ingurumen-iraunkortasuna eta zaintzen etika.

Ikuspegi globala duten proiektu eraldatzaileetan oinarritutako ikaskuntzak **zalantzan jartzen du gaur egungo garapen-eredua, eta bizitzaren iraunkortasunerako zaintzak sustatzen ditu**, hausnarketa eraldatzailetik eta errealitatearen analisi kritikotik abiatuta. Horrela, prestakuntza integrala sustatzen da, bai eta gizarte-egituren artean mikroeskalan nahiz makoroeskalan izaten diren elkarren mendeko harremanen berri jakitea ere (politikoak, ekonomikoak eta demografikoak). Azken batean, hezkuntza-proiektuetan ikuspegi globala eta holistikoa sustatzeko tresna bat da, ikuspegien integrazioa (generoa, giza eskubideak, kulturartekotasuna eta ingurumen-iraunkortasuna) errazten duen zeharkakotasunetik lan eginez eta haiek testuinguruan eta errealitatean txertatuz. Hori guztia lagungarria izan daiteke, hezkuntza-erakundeetan ikuspegi integratzailea garatzeko, eta koherentzia-maila handia lortzeko irakasten diren jakintzen, pentsatzen denaren, esaten denaren, egiten denaren eta erakundeek hori lortzeko planteatzen duten antolaketaren artean.

Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen (HGHE) arabera, koherentzia hori hezkuntza-prozesu eraldatzaileetatik abiatuta gauzatu behar da. Hau da, **hezkuntza gogoetatsua, kritikoa, jardutera bideratua, holistikoa eta**

diziplinartekoa izatea da helburua. Eta herritartasun globalari erreparatuko dio; hau da, metodologia honetan aipatu eta azpimarratu dugun ikuspegi globala aintzat hartuko du. Ikuspegi hori bat dator tokiko lana elkartasuneko testuinguru global batean egitearen printzipioarekin; izan ere, testuinguru globalaren erreferentziarik gabe, konpondu nahi dugun arazoaren kausak benetan zein diren ez jakiteko arriskua dugu. Hortaz, horrela sortzen da proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, giza eskubideetan, genero-berdintasunean eta -ekitatean, eta ingurumen-iraunkortasunean oinarritutako jarduera eraldatzaileak eta ikuspegi globala txertatzen dituena, baita zaintzaren etikan oinarritutako harremana ere.

Bibliografia eta intereseko erreferentziak

Honezkero ohartuko zinen ez dagoela orain arte azaldutakoa ixten duen ondoriorik. Gure ustez, honen moduko lan bat ixteko, orrialde hauetan azpimarratu dugun sakontze-lanarekin jarraitzea da egokiena. Alde horretatik, hemen uzten ditugu, alde batetik, argitalpen honetan erabilitako erreferentzia bibliografikoak, eta bestetik, dokumentazio-base ahalik zabalena, bideak irekitzeko, partekatzeko eta eraldatzeko aukera emango duena.

Ibilbide zoriontsua!

Testuko erreferentziak

Aguado, G. (2013). *Educación para el desarrollo y la ciudadanía global (EpDCG). Guía para su integración en centros educativos.* Madrid, España: InteRed.

Aguado, G. y Mendia, R. (2013). *¿Qué es el aprendizaje servicio? Aprendizaje-Servicio: una metodología para el compromiso con el contexto*. Conferencia en congreso.

Boal, A. (2002). *Teatro del Oprimido. Juegos para actores y no actores*. Barcelona, España: Alba Editorial.

Boal, A. (2004). *El arco iris del deseo: del teatro experimental a la terapia*. Barcelona, España: Alba Editorial.

Cordero, J.M., Manchón C. y Simancas, R. (2014). *La repetición de curso y sus factores condicionantes en España*. Revista de educación, 365, 12-37. Doi: 10.4438/1988-592X-RE-2014-365-263.

Díaz, M. y Ost, N. (2012). *Jugar y Actuar Nuestras Armas para la Paz. Juego teatral y procesos colectivos de aprendizaje*. España: InteRed.

Gallego, R. (2014). *Tiempo entre Paréntesis. El juego cooperativo como herramienta de transformación*. España: InteRed.

Freire, P. (1990). *La naturaleza política de la educación: Cultura, poder y liberación*. Barcelona, España: Centro de Publicaciones del M.E.C. y Ediciones Paidos iberica, S.A.

Rivasés, M. (2017). *Ludopedagogía. Jugar para conocer, conocer para transformar*. España: InteRed.

Sánchez, I. (2014). *Universo de Emociones. Experiencias de Arteterapia y Cuidados para la Movilización Social*. España: InteRed.

Vallaeys, F. (2011). *El aprendizaje basado en proyectos sociales.* España: Zerbikas.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak...

Egileak

Corkille, D. (1970). Haurtzaroaz. Oso liburu humanoa, haurren haziera eta bilakaera errespetu handiz azaltzen dituena: *El niño feliz: Su clave psicológica*. Barcelona, España: Gedisa.

Reich, W. (1945). Ospetsu egin zen hezkuntza-alternatiben oinarrian dagoen autorregulazio organismiko kontzeptua sortu zuelako. Honako hau kontsultatzea merezi du *La función del orgasmo*. Barcelona, España: Paidós.

Reichert, E. (2011). Haurren eta nerabeen eboluzio-aldiei buruzko gida garrantzitsua. Honako hau, ezinbestekoa *Infancia, la edad sagrada*. Barcelona, España: La Llave.

Tonucci, F. (1996). Haurren eskubideen babesle irmoa. Haren lanik onena *La ciudad de los niños*. España: Editorial Graó.

Wild, R. (2002). Hezkuntzari buruzko liburu interesgarri batzuk idatzi zituen. Honako hau nabarmendu behar da *Educar para Ser*. Quito, Ecuador: Fundación Educación Pestalozzi.

Sarean

Metodologia desberdinen inguruan:

Jolas kooperatiboaren inguruan:

Paco Cascón en bi bideo esplikatibo:

Entrevista a Paco Cascón: “Juego” **ZABALDU ESTEKA**

Entrevista a Paco Cascón: Educación en y para el conflicto **ZABALDU ESTEKA**

Ludopedagogiaren inguruan:

Emotive Programaren barruan InteRed beste elkarteekin batera sartua egon den esperientzia: “Ludopedagogía: El juego para transforma” **ZABALDU ESTEKA**

Ludopedagogiaren inguruko bideo azalpena: “Ariel Castelo: giore è una cosa seria” ZABALDU ESTEKA

Zapalduen Olerkian oinarritutako teknika ludikoteatralak

Metodologia honen inguruan gehiago ezagutzeko InteReden bideo labur bat: “Jugar y actuar – inicio de la creación teatral” ZABALDU ESTEKA

Metodologia honetan InteReden esperientzia: “Aprendizaje basado en proyectos – Asignatura de Ciencias Naturales” ZABALDU ESTEKA

Hezkuntzan ezarritako arteterapiako tresnak:

InteReden esperientzian oinarritutako metodologia honen inguruko bideo azalpen labur bat: “Arteterapia en Coria” ZABALDU ESTEKA

Marian López Fernández-Caori egindako elkarrizketa interesgarri bat, kultura, artea eta metodologia honen inguruan: “sobre la cultura, el arte y también esta metodología” ZABALDU ESTEKA

Eskubideen ikuspuntuarekin Ikasketa-Zerbitzua

Metodolgoia honen inguruko bideo laburra: “Aprendizaje y servicio solidario” ZABALDU ESTEKA

InteRedek bultzatutako Ikasketa-Zerbitzua esperientzia testuinguru formal eta zahartzaroan: “Aprendizaje y servicio en centro educativos de la Comunidad Valenciana” ZABALDU ESTEKA

Begirada globalarekin Ikasketa Zerbitzu Proiektu eraldatzaileak

Metodologia honi buruz bideoa: dokumental laburra: “Ikai: Aprendizaje Basado en Proyectos” ZABALDU ESTEKA

Metodologia honen esperientzia: “Aprendizaje basado en proyectos – Asignatura de Ciencias Naturales” ZABALDU ESTEKA


GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Bizkaia
foru aldundia
diputación foral


ZAINTZEN
PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE
LOS CUIDADOS


InteRed
por una educación transformadora